

Zaldibar Argituk lanuztera deitu du

Zaldibar Argitu plataformak lanean geldialdia egitea proposatu du datorren egunerako, martxoak 12, 12:00etatik 15:00etara. Zaldibarren, Eibarren, Ermuan, Elgetan eta Mallabian deitu dute lanuztera. “Errealak ez den normaltasuna eteteko”, plataformako kideek mobilizazioarako deia egin dute. Lau aste pasatu dira Zaldibarko hondakindegian luizia gertatu zenetik. Langile bik desagertuta jarraitzen dute. **9**



Astolako igerilekuko estalkiaren egoerak erabiltzaileak eta langileak kaltetu ditu

Abadiño I Udalaren esanetan, estalkia korrosioak janda dago. Igerilekua zarratuta egongo da hurrengo hileetan, eta erabiltzaileak irtenbideak eskatzen hasi dira. Kaltetutako beste batzuk bertako langileak dira. Haietarikoa hainbat kalera doaz **2-3**





Aldarrikapen morea Durangaldean

Durangaldea I Martxoaren 8ra begira, egitarau oparoa antolatu dute eskualdean. **5**



Martxoaren 2tik 31ra

UDABERRIKO ESKAINTZAK

ESKATU HITZORDUA ONLINE EDO ZUZENEAN ZURE DENDAN

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen



"Gure kexak kontuan hartu izan balira, Astolako instalazioak ez ziren, beharbada, hain txarto egotera ailegatuko"

Abadiñoko igerilekuko erabiltzaileak kexu dira. Igerilekuko teilatuaren egoera ona ez denez, instalazioa zarratuta egongo da hurrengo hileetan eta ezingo dute bertan kirolik egin. Abadiñoko Udalak dio ulertzen duela "frustrazioa", eta azaldu du "ahal duen guztia" egiten dabilela irtenbide bat lortzeko



Silvia Sotorrio, Virginia Gonzalez, Rosa Mari Zearsolo, Edurne Gandiaga, Juliana Rodriguez, Idoia Briones, Aitzol Oregi, Loli Totorikagueneta eta Ibon Lizundia Astolako igerilekuko erabiltzaileetarikoz batzuk dira.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

"Igeriketa gustatzen zait, poolbike ere egiten dut eta ez dut neure burua beste kirolen batean ikusten", dio Edurne Gandiagak. "Beharbada beste zerbait egiten hasi beharko dut", dio. Virginia Gonzalezek ere antzeko egoera bizi du, baina igeriketa ezinbestekoa da haren kasuan. "Ia egunero etorri izan naiz igeri egitera, baina beste kirolen bat egiten hasteko aukera hori ez da bateragarria nigan. Ezin dut inpaktuzko kirolak egin. Ezin dut gimnasioa erabili, ezta pisurik altxatu ere", adierazi du.

Abadiñoko igerilekuko erabiltzaileek kezka, haserre eta kirola

egiteko ezintasunak agertu dizkionte ANBOTOr. Joan den otsailaren 16ko haizeteen ondorioz, Astolako igerilekuko sabaiaren zati bat jausi

Haizeteek agerian utzi dute igerilekuko estalkia txarto dagoela. Korrosioak janda dagoela adierazi dute

zen. Ordutik, igerilekua zarratuta dago eta halaxe jarraituko du aurrerantzean ere, udalak arazoari konponbidea eman arte. Izan ere,

haizeteek agerian utzi dute estalkia txarto dagoela. Korrosioak janda dagoela adierazi dute udaletik. Mikel Garaizabal alkateak eta Javier Crespo alkateordeak prentsaurrekoan azaldu dutenez, sabaiaren gaineko ikerketa bat egitea agindu diote enpresa bati. Eta ikerketa hori egin eta gero jakingo du udalak ea kalteak konpontzea ala sabai osoa berritzea komeni den. Edozelan ere, ikerketa horrek "hile eta erdi edo hile bi" inguru iraungo zuela azaldu zuen Garaizabalek.

Hortik aurrera, baina, ikusteke dago zer gertatuko den. Posible da igerilekua zarratuta egoteko epea are eta gehiago luzatzea. Estalkia

egokitzeko zein berritzeko proiekturen bat egin beharko balitz, administrazio prozesu bat, lanen lizitazio fase bat eta obrak eurak hasieratik amaierara egitea eskatuko luke. Azken hauek argitu bako puntuak dira, oraingoz.

"Mantenu falta"

"Hainbat bider kexatu naiz instalazioen mantenua dela-eta. Ez bakarrik sabaiari buruz. Instalazioen euren mantenu orokorrari buruz nabil. Eta esango nuke hau ez dela nire ustea bakarrik, erabiltzaile askoren iritzia dela. Badira urte batzuk kexak ipinitzen hasi ginela, eta, iruditzen zait, gure kexak kontuan hartu izan balira, instalazioak ez zirela, beharbada, hain txarto egotera ailegatuko". Virginia Gonzalez izan da azalpen hori eman duena, baina erabiltzaile guztiek bat egiten dute adierazpen horregaz. Loli Totorikaguenak hainbat bider itoginak ere egon izan direla azaldu du. "Gertatu izan zaigu poolbike egiten aritu eta sabaitik tantak jaustea gure gainera", dio. "Igeri egiterakoan ere bai. Gora begira igeri egiterakoan ere gertatu izan zaizkigu horrelakoak. Gutxienez urte biko gertatu dira halakoak", gaineratu du.

Aitzol Oregi igeri egitera joaten da Astolara. Bai bere kabuz eta baita ikastaroetan parte hartuta ere. Gertatutakoa urteetako utzikeriaren ondorio dela uste du. "Haserre nago. Utzikeriagatik ailegatu gara egoera honetara. Instalazioak ez dira egun batetik bestera hain kaltetuta

agertzen. Urteetako utzikeria edo mantenu falta dago hemen", azaldu du. Gonzalezek, berriz, hala dio: "ez dut esaten mantenua ona ala txarra den. Diodana da egiten diren mantentze lanak ez direla igerileku mota honetara egokitutakoak. Pena da inauguratu zeneko baldintzetan ezin mantentzea".

Irtenbideak aztertzen

Egoera honen aurrean neurriak hartuko dituztela aurreratu dute Garaizabal eta Crespo alkate-alkateordeek. Barikuan egindako prentsaurrekoan azaldu zuten,

Erabiltzaileak inguruko beste herri batzuetara bideratzeko irtenbideak bilatzen ari dela dio Abadiñoko Udalak

erabiltzaileei zelan konpentsatu aztertzen dabilta. Eta igerilekua itxita egon bitartean, "beste leku batzuetara" joateko diru-laguntza partida aztertzen dabilta.

Erabiltzaileei euren bonutik dagokien diru kopurua itzultzea eskatu du EH Bilduk. Era berean, ardurari dagokienez, Abadiñoko Udalak auditoria bat egin dezala eskatuko du, "orain arte igerilekua kudeatzen aritu den enpresak kontratuan adierazitako betebeharren betetze maila aztertu eta alde bakoitzaren erantzukizunak zehazteko".



Abadiñoko Javier Crespo alkateordeak eta Mikel Garaizabal alkateak egoerari buruzko azalpenak eman zituzten joan zen barikuan.

"Sabaiagaz zerikusirik izan ez arren, sorosleak eta garbitzaileak kalera goaz"



Langileetarikoz batzuk lanik barik edo lana kolokan dutela gelditu dira.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Kiroldegiko langile batek ANBOTOrri esan dioenez, Emptesport enpresa kudeatzaileak kale gorrian utzi ditu bertako hainbat profesional, eta beste hainbaten lanpostua kolokan ipini du. "Aldi baterako lan erregulazio espedientea ezarri digute lanpostu finkoa dugun 3 sorosleri eta garbitzaile bati. Baina obra amaierako kontratua duten langileetarikoz batzuk kale gorrian gelditu dira: hiru garbitzaile eta lau sorosle", esan du langileetarikoz batek. "Gure lanek ez dute berezko loturarik sabaiagaz, baina sorosle batzuk eta garbitzaileak gara horren ondorioak jaso ditugunak", dio.

Igerilekua hustuta dago. Ez dago igeriketaz zerbitzurik, eta horrek automatikoki baldintzatu du kontratu finkoagaz egon diren sorosleen lana. "Irailera arte horrela egongo

garen susmoa dugu. Ez dago zerbitzurik, baina, bitartean, ez digute ezer kontsultatzen utzi. Igerilekuko lanaren ordean, spinning klase gehiago eskaintzerik izango genuke? Mantentze gimnasiorako klase kopurua handitu ote dezakegu? Sarritan dioskue denera moldatu behar dugula, eta orain, hau", dio beharginak. Langabezia gelditu diren garbitzaileak ere gogora ekarri ditu. "Igerilekua zarratu dutenez, bertako aldagelak ere itxi dituzte. Hainbat garbitzailearen kaleratzea justifikatu dute horregaz", gaineratu du.

Beharginak gogora ekarri du Durangaldean egon izan direla inoiz kiroldegian ariketa fisikoa egin bitartean bihotzekoak jota hil direnak. "Gimnasioan edo klaseren batean larrialdiren bat gertatuko balitz, nork artatuko luke erabilitzailea?", galdetu du. "Sorosleak gara lehenengo sorospenak egiten dakigunak", esan du.

2002. urtean eraikitako igerilekuaren estalkiak ikusmin handia sortu zuen


Bartzelonatik ekarri zuten igerilekuaren "txapela"

ABADIÑO • J.G.

ANBOTOrri 22. zenbakian, Abadiñoako igerilekuen obren inguruko albisteak agertzen da. Argazki oinanean, honelako estalki mugikorra zeukan Bizkaiko igerileku bakarra zela irakurri zitekeen. Estalkiak ikusmin handia sortu zuen herri-tarren artean. 2002ko apirilaren 26an kaleratutako alean azaltzen denez, estalkia Bartzelonatik ekarri zuten. Udalak 102.172 euro

Estalkiak 102.172 euroko kostua izan zuen; Javier Uriarte zen Abadiñoako alkatea garai hartan

ordaindu zituen, Javier Uriarte alkate zela. Albistean jaso zenez, igerilekuko obra guztiak 2.404.048 euro kostatu zen. Uztailearen erdirako prest izatea gura zuten.



ANBOTOn 2002an kaleratutako argazkia.

Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsapppe jasotzen?

Batu Anbotoko Whatsapp-era



Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



anboto

Neguko denboraldi eskasaren aurrean, dendariak herritarren laguntza eskatu dute Aukera Azokan stocka husteko

Barikutik domekara, askotariko 28 postu batuko dira Landako Gunean; sarrera doakoa da eta ekimenak prestatuko dituzte gazteentzat



Postuez gainera, gune gastronomiko bat ipiniko dute, askotariko janari eta edariekin.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Barikutik domekara, Durangoko eta Iurretako 28 establezimenduk parte hartuko dute 15. Aukera Azokan. Euren standetan, denboraldi honetako eta beste batzuetako produktuak egongo dira salgai, ohi baino prezio merkeagoan: arropa, kirol dendetako materiala, oinetakoak, etxerako tresnak, kotxeak, betaurrekoak... Aurtengo neguko denboraldia "ez da ona izan", Oliver dendako Agurne Azkaratek ekimena aurkezteko prentsaurrekoan adierazi duenez. "Stock-a husten laguntzeko deia egiten diegu herritarrei. Komertzio txikiarentzat oso gogorra izaten ari da", adierazi du.

Azokaren ordutegia honako hau izango da: barikuan eta zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara; domekan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Askotariko guneak

Aurten ere gune gastronomikoa ipiniko dute eta Baquek, Gozatuk eta Saltsanek askotariko produktu

gazi eta gozoak eskainiko dituzte. Horrez gainera, txikientzat aisialdirako gune bat egongo da. Nagusiek erosketak egiten dituzten bitartean, umeak txikiparkean egon ahalko dira begiraleen zaintzapean. Ildo horretatik, Kids&Us akademiak ingelesezko ipuin kontaketa saioa eskainiko du zapatuan, 13:00etan.

Deskontu txartelak

Bai azokan bai Durangoko saltokie tan erosketak egiten dituztenen artean —martxoaren 2tik 8ra—, 800 euro zozkatuko dituzte deskontu txartelak. Horretarako, azokan ematen den txartela bete behar da, erosketatik erantsi behar zaio eta azokan ipinitako buzoian entregatu behar da.

Aurreko urteetan lez, sarrera doakoa izango da eta erosketak egiten dituztenek ordu biko doan izango dute Landako Guneako apartekakua.

Asteburuko ekimena Dendak Bai elkarteak antolatu du, Eusko Jaurlaritzaren eta Durangoko Udaren laguntzagaz.

Durangoko EAJk erregistratutako agiri batek eztabaida piztu du EH Bilduren eta jeltzaleen artean

40 Minutu Rock jaialdian presoak gerturatzeko eskatzen zuen pankartaren kontrako neurriak eskatu izana leporatu dion EH Bilduk Mireia Elkoroiriberi. Jeltzaleen esanetan, "araudia betearaztea" zen Herritarren Arreta Zerbitzuan egindako eskaeraren helburua

DURANGO • J.D.

40 Minutu Rock jaialdian presoak Euskal Herrira gerturatzeko aldarrikatzen zuen pankarta baten harira, Mireia Elkoroiribek pankarta hori "eskegi izana salatu" zuela esan zuen EH Bilduk, martitzenean, ohar baten bitartez. Gainera, "antolatzaileen aurkako isunak" eskatu zituela. Horrela, "zigorren bitartez adierazpen eskubidea urratzea" eta "eskuin muturreko diskurtsoetara

hurbiltzea" leporatu zioten Durangoko EAJren bozeramaileari. Gainera, Durangoko EH Bilduren ustez, Elkoroiribe "durangarrik gehien iritziaren aurka" posizionatu zen jarrera horregaz.

EAJk beste ohar batez erantzun zuen egun berean. Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) egindako eskariaren helburua "indarrean dagoen araudia bete-araztea" zela erantzun zuten jeltza-

leek. "Durangok atsegina izaten jarraitzea gura dugu, bai bertan bizi garenontzat, bai kanpotik bisitan datozenentzat", arrazoitu zuten.

HAZ en eginiko eskaera orriaren kopia ere bidali zuten. Bertan, Elkoroiribek legedia betetzeko eskatzen du, eta, horretarako, "baimenik bako kartel eta pankartak kentzea eta arau apurketa larri honi dagozkion zigorrak ezartzea" eskatzen du.



40 Minutu Rock jaialdiko irudia.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko martxoaren 6a
18. urtea - 797. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01

ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga

Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta

Goretti Alonso Armendia

Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba

Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi,

Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.

Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga,

Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola

Mazorriaga.

Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

“Tradizioa eta berrikuntza ez direla bateragarriak uste izaten da; ez da horrela, ausartak izan behar dugu”

Durangoko Gozatu gozotegiko te-pastak saria lortu du estatuko lehiaketa batean

DURANGO • JOSEBA DERTEANO
Dulcypas aldizkari prestigiotsuak antolaturiko txapelketan, Gozatu gozotegiko 'lur-garana' pastak Euskadiko te-pastarik onenaren saria irabazi du. Karmele Elexpe gozotegiko arduradunak eta Anne Cornejo gozogile-chefak euren produktu irabazlearen sekretuak kontatu dituzte.

Kontaiguzue, zein da pasta irabazlearen sekretua?
Anne Cornejo: Lehenengo eta behin, kalitatezko lehengaiak erabili behar dira. Gero, zaporeen konbinazioa eta pasta egiteak dituen lanketa desberdinak daude. Arlo asko ditu.

Karmele Elexpe: Mota honetako txapelketak alkimia lan bat dira, hein batean. Fintasunaren bilaketan dago gakoa.
Zeintzuk osagai erabili dituzue alkimia lan horretan?
A. C.: Oinarria 'crumble' erako gaila espeziaduna da. Ukitu kurruskaria ematen dio pastari. Barruan txokolatea darama, karamelo puntuategaz eta yuzu-agaz. Azkenik, gainean gurinezko gaila darama, urre koloreko txokolatezko botoiategaz.
Zer da Yuzua?
A. C.: Inguru honetan oraindino asko ezagutzen ez den zitriko bat da yuzua. Jatorriz Txinakoa da eta gaur egun Japonian erabiltzen da gehien. Limoiaren eta pomeloaren arteko nahasketa moduko bat da zaporean.



Karmele Elexpe eta Anne Cornejo te-pasta irabazleak.

Txapelketak erakusten duenez, pas-tagintzan eta pastelgintzan badago berrikuntzarako bilaketa hori.
A. C.: Jakina badagoena. Zaporeen konbinazioa, testura desberdinen bilaketa...

"Mota honetako txapelketak alkimia lan bat dira. Fintasunaren bilaketan dago gakoa"
K. E.: Tradizioa eta berrikuntza ez direla bateragarriak uste izaten da eta ez da horrela. Biak bateragarriak dira nire ustez. Ausartak izan behar dugu. Batzuetan, betiko moldeetan egindako gozoak ikusi

ezik, atzera eragiten dio jendeari. Euskal Herrian pintxoetan zein bestelako sukaldaritzan dugun ize-nagaz, gozoaren arloan asko galdu da Durangon. Esaterako, nire aitita gozogilea eta txokolategilea izan zen. Sasoi haretan, Durango gaur baino askoz ere txikiagoa zenean, bost gozotegi on zeuden. Hori galdu egin da. Gaur egun, produktu industrialetako azukreak gainerako zapoak galtzera darama. Gero, jendeak dio gozoak azukre asko duela, osasunareko ez dela ona... Baina azukrea ia denean dago gaur egun: ogian, poteko tomatean, edarietan... Guk, oster, azukrea ahalik eta gehien neurtzen dugu, gainerako zapoak estali ez ditzan.



Lilakrosa ekimen arrakastatsua izaten da urtero.

Aldarrikapen moreak Durangaldeko herrietako kaleak hartuko ditu asteburuan

Durangoko Lila Krosak 15. aldia beteko du aurten, eta Ezkurdin hasi eta amaituko da, domekan, 11:30ean

DURANGALDEA • J.D.
Emakumeen Nazioarteko Egune-ko agenda ekitaldiz beteta dago Durangaldean. Urteroko ekimenik jendetsuenetakoa Durangoko Lila Krosa izaten da. Domekan, 11:30ean, 15. aldia beteko du Ezkurdin hasi eta amaituko den lasterketak. Iurretan ekimen berdina egingo dute, 12:30ean, baina Milla Morea izenagaz.
Zornotzan, M8 Plataformak egitarau zabala antolatu du asteburuari begira. Azaldu dutenez, aurten "beste herrialde batzuetatik Zornotzara etorri diren emakumeen errealitateak ezagutu eta ikusarazi" gura dituzte. Ildo horretatik, emakume horiei ahotza emango diete domekan, 11:30ean, Zelaieta parkeko karpan antolatu-

ko duten kafe-tertulian. Ondoren, bazkaritara batuko dira.
Herri askotan manifestazioak antolatu dituzte emakumeen kontrako diskriminazio ugariak salatuzko: Durangon, Elorrioren, Zornotzan eta Berrizen, hain zuzen. Abadiñon, besteak beste, hiko duten kafe-tertulian. Ondoren, bazkaritara batuko dira.
Zornotzan emakume migratzaileak ezagutaraziko dituzte hainbat ekimenen bitartez
labete osoa iraungo duen Gerorako oroitzapenak, ahalduzko praktika artistikoak erakusketa ikusgai dago Errota kultur etxean.

Herriko Tabernako barra berria sarreraren parez pare egongo da eta zabalagoa izango da

Taberna erabiltzaileak barran egoten zirenez batez ere, egitura horri protagonismo handiagoa ematea erabaki du udalak; hasi dute lanak esleitzeko lehiaketa publikoa

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Mañariko Herriko Tabernako ustipena berriro eman aurretik, udalak goitik behera eraberrituko du. "Taberna berria izango da", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak. Proiektuak asmo horixe islatzen du. Barruko banaketa guztiz aldatuko da. Esaterako, barra sarreraren aurrez aurre ipiniko dute eta, gainera, aurrekoa baino zabalagoa izango da. "Lehen, jendea barra inguruan egoten zen normalean.

Mahaiak gutxi erabiltzen ziren. Horregaitik baloratu dugu barra handiagoa egitea", esan du Otxotorenak.
Lehenago barra zegoen tokian, komun bi egingo dituzte. Komun eta barraren artean biltegitako sarrera egongo da. Sukaldea barraren atzealdean egongo da eta barratik bertatik izango du sarrera. Tabernak mahaiak eta aulkiak ere izango ditu.

Lehiaketa publikoa martxan
Joan zen asteko udalbatzarrean, aho batez onartu zuten proiektuko baldintza orria, 150.000 eurotan. Buletin ofizialean publikatzen denetik aurrera, enpresek hilaletako epea izango dute euren proposamenak aurkezteko. Ondoren, udalak proposamen guztietatik bat aukeratu du, eta, udalbatzarrearen oniritziagaz, tabernako barrualdea berritzeko lanak esleituko ditu.



Mañariko Herriko Taberna itxita dago azarotik.

Elorrioko Txintxirri Ikastolako umeak dira 2020ko Ibilaldiko bideoklipeko protagonistak

Aurtengo Ibilaldia maiatzaren 31n izango da, Elorrion, eta antolatzaileen hitzetan ikastola eta euskal kultura Euskal Herriko zirrikitu guztietara zabaltzea izango da helburua. Baita bertaratzen direnek euskaraz disfrutatzea ere



Txintxirri Ikastolako ikasleak bideokliparen grabazioan.



David Cobos, Josune Bañales, Eider Barrena eta Iraitz Erkiaga.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2020ko Ibilaldia dela-eta azken hile eta asteotan Elorrion lantzen ibili diren abesti eta bideoklipak ikusi du dagoeneko argia. Eta, hain zuzen ere, joan zen barikuan Euskaltzaindian aurkeztu zuten. Hantxe izan ziren Josune Bañales Ibilaldia Elkarteko presidentea, Eider Barrena Txintxirri Ikastolako presidentea, David Cobos Txintxirri Ikastolako zuzendaria eta Iraitz Erkiaga Txintxirri Ikastolako irakaslea eta Ibilaldiko abestiaren letraren egileetarikoa bat.

Ohar baten bitartez jakinarazi zutenez, abestiaren grabazioa eta masterizazioa Lorentzo Records estudioan egin zuten, 2019ko abenduaren 16tik 20ra. Abestiaren letra Itsaso Basaurik, Haritz Luzarrek eta Iraitz Erkiagak egin dute, eta musikari hauek parte hartu dute: Asier Eliasek, Urko Igartiburuk, Gorka Molerok, Mikel Quesadak, Eneko Arraibik, Adrian Lopezek, Iñigo Arruabarrenak, Itziar Azkaratek, Mamen Rodrigok eta Zoe Igartiburuk.

Ibilaldiko abestiaren letra Itsaso Basaurik, Haritz Luzarrek eta Iraitz Erkiagak idatzi dute

Kimetz Blancok, Imanol Garaizabalek eta Aritz Kortazarrek grabatu dute bideoklipa, eta Txintxirri Ikastolako ikasleak izan dira protagonista nagusiak.

Euskara ardatz

Euskara eta Ikastolak ardatz dituen Ibilaldia maiatzaren 31n egingo da, Elorrion. *Hel Horri!* izango du leloa, eta, antolatzaileen berbetan, familiagaz zein lagunekin euskaraz ospatzeko eguna izango da.

Bestalde, Ibilaldia elkarteko ki-deek jakinarazi dute aurtengo Ibilaldiaren helburu nagusia ikastola eta euskal kultura Euskal Herriko zirrikitu guztietara zabaltzea izango dela.

EH Bilduk lurretako airearen kalitatea neurtzeko eskatu du

IURRETA • AITZIBER BASAURI

EH Bilduk mozioa aurkeztu du udalak lurretako airearen kalitatearen "neurketa zehatzak" egiteko eskatu diezaion Eusko Jaurlaritzari. Neurketen emaitzen berri udalari eta herritarrei ematea ere eskatu dute. Bestalde, beste eskari bat ere aurkeztu dute, udalak Oromiño inguruan hasi dituzten goitentsioko linearen eraikuntza lanak geratzeko agindu dezan, "lineak ingurumenean izan ditzakeen kalteak saihesteko neurriak hartu artean".

Mugi proiektua martxan, "Zelaietako berrantolaketa definitzeko"

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko EH Bilduk Abadiño Mugi proiektua ipini du martxan, "herriko mugikortasuna aztertu eta irtenbidea emateko". Lehenengo urratsa Zelaieta auzoko mugikortasuna aztertzea izango da. "Herritarren segurtasuna, irisgarritasuna eta auzoen bizitasuna bermatuko dituen mugikortasun plan baten behar-rean gaude", adierazi dute.

Lehenengo batzarra asteon egin dute eta bigarrena martxoaren 18an izango da.

Garaiko Udalak Momoitioko San Juan baselizaren ingurua hobetzeko lanak egingo ditu

Zuhaitzak aztertu eta beharrezko inausketak egin eta gero, balio ekologikoari buruzko informazio panelak ipiniko dituzte

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak egindako azterketen arabera, "lurraren trinkotzearen ondorioz", eta "aleen adina dela-eta", Momoitioko San Juan baselizaren inguruko zuhaitz batzuk jausten hasita daude. Zuhaitz batzuek onddoak dituztela eta enborra ere ahuldu egin zaiela ondorioztatu dute ikerketek, eta udalak lanak egingo ditu arazoa konpontzeko.

Baselizaren inguruan dauden zuhaitzen egoera aztertu eta gero, premiazko inausketa batzuk

egin dute. Inguruneke bizilagun eta erabiltzaileentzat "arriskutsuak izan daitezkeen" adar hilak kendu eta "ainguraketaren bat" egingo dute zuhaitzik jausi ez dadin. Bestalde, "bertako haritz eta arte zaharren ordezkioak izan litezkeen zuhaitzak landatuko ditugu", esan dute.

Azkenik, inguruaren balio ekologikoari lotutako informazio panelak ipiniko dituzte. Momoitioko inguru paregabea zaintzeko eta babesteko deia ere egin du udalak.



Momoitio.



Bertako basoak berreskuratzen jarraitzen dute Otxandion, 1.400 zuhaitz landare berri landatuta

Anbientalia 21-eko adituek Gomilaz eta Gordobil auzoen arteko hektarea bitan egin dute landaketa; zuhaitz landareetariko asko erleentzat aproposak dira, inguru hartan antzinako erletegi baten arrastoak aurkitu dituztelako



Ekzerrean, erletegi gunea eta harrizko horma; eta gaineko aldean, landaketa eremua. Eskuman, gune hartan landatutako landare batzuk; tartean, hainbat txilar espezie.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Gomilaz eta Gordobil auzoen arteko hektarea bitan, zuhaitz autok-tonoen 1.400 landare berri daude. Aurretik han zeuden haritz amerikarrak kenduta, Anbientalia 21-ek landaketa berria amaitu berri du bertako basoak berreskuratzeko garatzen ari den proiektuaren barruan. Otxandioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren languntza dute egitasmoa aurrera eramateko.

Landareak aukeratzeko orduan, ingurua garbitzen zebiltzala aurkitutako bitxikeria bat kontuan

hartu dute. Sasoi batean erletegiak babesteko funtzioa zuen harrizko horma bat aurkitu dute. Horrela, etorkizunean eremua erletegi moduan berreskuratzeko aukerari atea zabalduta, erleentzat "aproposak" diren zuhaitz landareak ipini dituzte, Sergio Gallego Anbientalia 21-eko kideak kontatu duenez. Basoko makatzak, basoko sagarrak, gerizondoak, elorri zuria, basarana eta hainbat txilar espezie landatu dituzte, besteak beste.

"Han zelako erletegi mota zegoen ikertzen gabilta. Errekurtso

naturalak zelan erabiltzen zituzten jakin gura dugu. Beharbada erabiler bat eman ahal zaio etorkizuna

"Zelako erletegi mota zegoen ikertzen gabilta; bioaniztasuna eta historia lotzeko modua da"

nean. Bioaniztasuna eta historia lotzeko modua da", azaldu du Sergio Gallegok.

Anfibioen urmaelak

Landaketa eremutik ez oso urrun, Presazelain, hainbat urmael egin zituzten orain urte bi, anfibioen ugalketa errazteko, eta emaitza onak ematen ari da. Bertako anfibio espezieen kopurua hazten ari da urterik urtera. Apo, igel eta uhandre espezie bina zenbatu dute hara egindako bisitetariko batean. Baso igela eta uhandre palmatua dira espeziatariko batzuk.

Etorkizunean, mota horretako urmael gehiago egiteko asmoa dutela azaldu du Gallegok.

Izurtzako erabilera anitzeko gunea hasi da herriko elkarten bilgune izaten

IZURTZA • J.D.

Erabilera anitzeko gunea hasi da bere fruituak ematen, eta ekimen baterako baino gehiagorako erabili dute dagoeneko. Esaterako, Izurtzako Mendigain dantza taldeak batzar bi egin ditu bertan urtea hasi zenetik hona. Martxoan zein aurrerago, entseguak egiteko erabiliko dute gunea berria. Horrez gainera, nagusientzako mantentze-gimnasia klaseak ere azpiegitura berrian egiten dituzte gunea inauguratu zenetik.

Belen Nevadok zuzendutako antzezlan bi ikusgai Mallabian

MALLABIA • J.D.

Detristu Teatro taldeko Belen Nevada aktore eta zuzendari extremadurarra protagonista duten antzezlan bi ikusi daitezke domekan, 12:30ean, Kontzejuzarrean: *Levántate y mea de pie* eta *Confieso que he fingido* dira antzezlanen izenak. Obra bieta-ko zuzendaria izateaz gainera, Nevada gidoilaria eta aktorea ere bada. Nahikari Mallabiko emakumeen elkartearen, udalaren eta Emakunderen artean antolatu dute ekimena.

Martxan da udalekuetarako izen-ematea Berrizen

Herriko gazteak lau taldetan banatuko dituzte: Txiki Txokoa, Gazte Txokoa, Abentura Txokoa eta Kanpamentua

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko aukera dago Berrizen uztailerako antolatu dituzten udalekuetarako izena emateko. Berrizko Udaletik jakinarazi dutenez, izen-ematea martxoaren 2an hasi zen eta martxoaren 18an amaituko da, eta udaletxean, liburutegian eta kiroldegian apuntatu daiteke.

Lau talde

Aurreko urteetan lez, udalekuetako gazteak lau taldetan banatuko dituzte aurten ere, adinaren arabera. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen udalekuak uztailaren 6tik 24ra izango dira. Antolatzaileek hiru txokotan ba-

natuko dituzte Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeak: Txiki Txokoa, Gazte Txokoa eta Abentura Txokoa. Ordutegia 9:30etik 13:30era izango da.

Udalekuetako izen-ematea udaletxean, liburutegian eta kiroldegian egin daiteke

DBHko ikasleen kanpamentuak uztailaren 8tik 17ra bitartean izango dira. Aurten, DBHko ikasleak Lizarrara joango dira uda pasatzera.

Atxondon adreiluekin itxi dute maisu etxea, AHTaren kontra daudela aldarrikatzeko

AHTrik Ez plataformako kideek Atxondoko eta inguruko herrietako herritarrei dei egin diete martxoaren 29rako, domeka, antolatu duten manifestazioagaz bat egiteko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain hamarkada bat baino gehiago, Adifek hainbat lur desjabetuko zuela iragarri zuen AHTaren bidea egiteko, tartean Atxondoko maisu etxea. Joan zen barikuan, hainbat herritarrek dagoeneko desjabetuta dagoen etxea adreiluekin itxi zuten. "Herri hau porlanez betetzeko asmoa duen Adifek maisu etxea erabiltzea lotsagarria da. Horregaitik itxi dizkiogu ateak; herriarentzat ez bada, herria txikitze asmoz datozenentzat ere ez dadila izan", esan dute.

Bestalde, herritarrei dei egin diete martxoaren 29rako, 12:30ean egingo duten manifestazioan parte hartzeko.



Apatamonasterion dagoen maisu etxea adreiluekin itxi dute.

Zaldibar Argituk lanuztera deitu du Zaldibarren, Eibarren, Ermuan, Elgetan eta Mallabian

Eguenean, martxoak 12, 12:00etatik 15:00etara beharrik ez egitea proposatu dute. 18:00etan mobilizazio bateratua egingo dute Eibar eta Ermua arteko biribilgunetik

ZALDIBAR • J.G. / A.M.

Lau aste pasatu dira Zaldibarko Verter Recycling hondakindegian lur-jausia gertatu zenetik. Zaldibar Argitu herri plataformako kideek prentsa agerraldia egin zuten atzo, hurrengo mobilizazioen berri emateko. Plataformako kideek lanuztera deitu dute martxoaren 12rako. Zaldibarko, Eibarko, Ermuko, Elgetako eta Mallabiko herritarrei zuzendutako lanuztera deitu dute. 12:00etatik 15:00etara bitarteko geldialdia egingo dute. 12:30ean mobilizazioak antolatuko dituzte inguruko herrietan. Eta 18:00etan mobilizazio bateratua egingo dute Eibar eta Ermua arteko biribilgunetik. "Inguruko herritar guztiak bertan parte hartzera animatzen ditugu, erakundeak mugiarazteko

eta neurri zehatzak hartzeko Zaldibarkoa errepikatu ez dadin", azaldu dute prentsaurrekoan.

"Eman dituzten azalpen teknikoak oso mugatuak dira eta herritarren kezka nagusiei ez zaie erantzun"

Parte hartzeko deia

Bestalde, inguruko herriei gainera, eragile sozial eta sindikalei mobilizazioagaz bat egiteko eskatu diete. Gainerako herriak ere "elkartasunez mobilizatzea" animatu dituzte, hondakinen kudeaketak "denei" eragiten diela iritzita.

Informazio eske

Plataformako kideek azaldu dutenez, "erakundeek normaltasun eta egonkortasun irudia eman gura badute ere, ezin dugu jokatu ezer gertatu izan ez balitz lez". Langile bi desagertuta daudela gogoratu dute. Gaineratu dutenez, "eman dituzten azalpen teknikoak oso mugatuak dira eta herritarren kezka nagusiei ez zaie erantzun".

Sinadura bilketa eta omenaldia

Zaldibar Argitu plataformak 146 zaldibartarren eskariak aurkeztu ditu udaletxean, udalak herri batzarrerara deitu dezan eskatzeko. Bestalde, hondakindegian desagertuta dauden langile biei omenaldia eta lore eskaintza egingo dizkiete Eitzagan, gaur, 18:00etan.



Otsailaren 15eko manifestazioko argazki bat.

Eusko Jaurlaritzak depositu bi eraikiko ditu hondakinak sartzeko

Bata Eitzagaetxebarria baserriaren ondoan egingo dute, eta bestea Verter Recycling hondakindegia lurretan

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak depositu bi eraikiko ditu Eitzagako inguruetan, zabortegiko hondakineteriko batzuk biltegiratzeko. Horietariko bat Eitzagaetxebarria baserriaren ondo-ondoan egingo dute, eta, horren eraginez, egunotan hainbat kamioi dabilta Eitzagako auzoa etenik barik zeharkatzen.

Jaurlaritzaren esanetan, depositua eraikitzeke lanek "interes soziala" dute eta "premiazkoak" dira.

Ez hori bakarrik. Eraikiko diren deposituek ez dute ingurumen inpaktua aztertzen duen txostenik beharko, ez eta lurzorua kalitatea ebaluatzeko prozedurarik ere.

Eitzagaetxebarria baserriaren ondoan eraikiko den deposituak 140.000 metro kubiko hondakin hartuko ditu. Verter Recycling hondakindegiko lurretan egingo denak, oster, 160.000. Erreskatetan erretiraturako hondakinak sartuko dituzte depositu bi horietan.



Eitzaga auzotik kamioiak pasatzen ari dira egunotan.



Gure ikasleen ahotan



"Banka sektoreko enpresei bere bezeroak hobeto ezagutzen lagundu gura diet, datuen analisiaren bitartez"

Mikel Agirrebeitia
(18 urte, Zornotza)
Mondragon Unibertsitateko Business Data Analytics Gradua egiten ari da, Bilbon.

Zer zaletasun dituzu?
Nire ametsa beti izan da txirrindulari profesionala izatea. Orain hobby lez daukat, egunero-kotasunetik deskonektatzeko balio dit.

Zer ikasten ari zara?
Gradu berri bat ikasten ari naiz, Business Data Analytics izeneko. Inteligentzia Artifiziala eta Machine Learning teknikak ikasten ditugu, hainbat algoritmo eta eredu matematiko sortzeko, datuen bitartez enpresen beharizanei erantzun zuzenak. Gradu hau ikastea erabaki nuen enpresa-kudeaketako, matematikako, estatistikako eta informatikako ezagutza zuzentzen dituelako.

Zelakoa izaten ari da zure ikasketza-esperientzia Mondragon Unibertsitatean?
Erronka errealean bitartez ikasten dugu, hau da, enpresen benetako arazoak konpontzen ditugu eta horrek datuen analisiaren ezagutza ingurune errealean barneratzeko eta aplikatzeko balio digu. Arazo horiek konpontzeko, hainbat ikasgai ditugu: enpresa, matematika, programazioa, datuen meatzaritza...

Erronken ebazpenean oinarrituta ikasten duzue: zein da konpondu duzun azken erronka?
Ebatzitako azken erronka ekonomiaz lotuta zegoen, eta fase bi zituen: lehenengo zatian, analisi makroekonomiko bat egin behar genuen, GSKrentzat

erakargarrienak diren 3 herrialdeak identifikatzeko. Enpresa hau Londresen dago, baina Brexitaren ondorioz bere egoitza beste leku batera eramatea erabaki du. Bigarren zatian, Innobasque (Berrikuntza Euskal Agentzia) izan zen erronka ipini ziguna. Gure lana zen aztertzea zein aldagaitan ipini behar duen arreta Euskadik RIS (Regional Innovation Scoreboard) izeneko sailkapenean hobetu ahal izateko eta, horrela, eskualde berritzaileenetako bat bihurtzeko.

Zer nabarmenduko zenuke gehien gradutik?
Ikasteko metodologia. Taldeak lan egiten dugunez, ez duzu irakasleengandik bakarrik ikasten, zure ikaskideengandik ere bai, eta errealtate bera ikusteko modu desberdinak partekatzen ditugu. Gainera, asko baloratzen dut erronka errealekin lan egiteko aukera izatea, lan mundura ateratzen garenerako hobeto prestatuta egoteko balio baitigu.

Etorkizunean non gustatuko litzazuke lan egitea?
Etorkizunean Iberdrolan, Banco Santanderren edo halako multinazional handi batean lan egitea gustatuko litzaidake. Zehazki, finantzen sektorean. Datuen analisiaren bitartez, eta baita clustering bitartez ere enpresari bere dirua hobeto inbertitzen lagundu ahal izatea gustatuko litzaidake. Horrela bere bezeroak hobeto ezagutzen ere lagunduko nieke.

Zornotzako Arkotxa-Bediaga auzoaren inguruan goi-tentsioko linearen lanak hasi dituztela salatu du EH Bilduk

Foru Aldundiaren ebazpen batek lanak baimentzen ez duela-eta, "lanak eteteko beharrezko neurriak" hartzea eskatu diote Zornotzako Udalari

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako EH Bilduk lanak hasiko ote ziren susmoak planteatu zituen joan zen astean, eta susmo horiek baieztatu egin ditu oraingoan. Koalizio subiranistak salatu du Red Eléctrica de España Gúeñes-Itsaso goi-tentsioko linearen lanak martxan ipini dituela Zornotzako lurretan. Azaldu duenez, Arkotxa eta Bediaga auzoen inguruetan hasi dituzte lanak, eta, hain zuzen ere, dorre elektriko bi eraikitzeke lehengo oinarriak ipini direla salatu dute. Proiektuko "T49 eta T50 dorreak" dira eraikitzen dabilzanak. EH Bilduk azaldu du auzotar baten deiari eskerrak izan dutela lanen berri, eta, orain, "lanak eteteko beharrezko neurriak" hartzea eskatu diote Zornotzako Udalari.

Kontua otsailean egindako osoko bilkurratik dator. Bertan, Ander Uriarte Zornotzako EH Bilduren bozeramaileak alkateari eskatu zion goi-tentsioko lanak udalerriko tokiren batean hasiko balira, horiek eteteko. EH Bilduk Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpen batean oinarritu zuen eskaria. Ebazpen

horren arabera, Foru Aldundiak ezingo lioke goi-tentsioko linearen lanak hasteko baimena eman Red Eléctrica de España; besteak beste, "baso espezieak" babestea eskatzen delako bertan. Arkotxan eta Bediagan hasitako lanek "sai zuriaren (babesturiko espeziea) habiagintzako eremua galtzea" ekarri dezakeela uste du koalizioak. Andoni Agirrebeitia alkateak Uriarteren

Lanak hasiko balira, Agirrebeitia alkateak Aldundiari jakinaraziko ziola esan zuen azken udalbatzan

eskariari erantzun zion pasa den osko bilkuran. Azaldu zuen lanak baimenik barik hasi diren berririk izango balu, "udal teknikariak bidali, argazkiak egin" eta jakinaren gainean ipiniko lukeela Bizkaiko Foru Aldundia.

Beste herrietan ere bai

Zornotzako kezka ez da kasu isolatua. Azken asteotan, antzera



Dorre elektriko bi eraikitzeke lanak hasi direla salatu du Zornotzako EH Bilduk.

bateko kezkak Durangaldeko beste hainbat herritan ere igarri dira. Mallabian, esaterako, hainbat herritarrek salatu zuten Red Eléctrica de

España hasita zegoela dorreak eraikitzen. Berrizen ere salatu dituzte baimenik barik egindako lanak. Zornotzaren txanda heldu da orain.

Goi-tentsioko linea Igorre aldetik sartu, Arkotxa-Bediaga eta Saratzu auzoak pasatu, eta Iurretako lurretan sartuko litzateke.

Zornotzako Udalak obrak egingo ditu Larrea eskolan, espazioari etekin handiagoa ateratzeko

Udan hasiko dituzte lanak. Dagoen espazioa beste modu batera aprobetxatu gura dute



Larrea eskola publikoaren beheko solairuan egingo dituzte lanak.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Eskolako langileek eta erabiltzaileek hala eskatuta, Zornotzako Udalak hainbat lan egingo du Larrea eskola publikoaren beheko solairua egokitzeke. Dagoen

espazioari etekin handiagoa atera gura diote.

Gaur egun, aldagelek eta komunek espazio partekatua dute. Bada, aurrerantzean, komunetarako baino ez da egongo tokia, eta beharri-

zan guztietara egokitutako komun bat ere ipiniko dute. Aldagelen kokalekua aldatu egingo da. Sarreran gaur gaurkoz dauden eremu biak batu eta bakarra osatuko dute. Hezkuntza bereziko gelei buruz ere bada zer esanik. Beste toki batean atonduko dituzte, argitasun gehiago izateko eta gela modu erosoagoan egurasteko aukera izateko. Azkenik, garbiketa zerbitzuaren tresnak eta gailuak gordetzeko gune bat atonduko dute.

Uda ostean prest

Guztira, 300 metro koadroko azaleran egingo dituzte lanak. Aurreikuspenen arabera, uztailen hasiko dituzte eta datorren ikasturte hasierarako prest izatea gura dute. Zornotzako Udalak finantzatutako obrak izango dira, eta, guztira, 160 bat mila euroko aurrekontua izango dute.

Larrea eskola publikoan, 2tik 5 urtera bitarteko 300 bat ume dabil-tza ikasten gaur egun.



Miren Martiarena Ogasun zinegotzia eta Andoni Agirrebeitia alkatea.

2021eko aurrekontuetan parte hartzeko epea zabaldu dute Zornotzan

Zornotzarrek aurrekontu parte-hartzaileetan proposamenak egiteko aukera izango dute apirilaren 30era arte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Datorren urteko aurrekontuaren zati bat zertan erabili gura luketen adierazi dezakete zornotzarrek. Udalak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua zabaldu du, eta herritarrek apirilaren 30era arte egin ditzakete proposamenak. 2021erako aurreikusitako inbertsioen %25 herritarren proposa-

menetatik tiraka garatu gura ditu Zornotzako Udalak (840.000 euro inguru). Andoni Agirrebeitia alkatearen esanetan, "parte-hartze aktiboa" sustatzea da helburua. "Zornotzarren iritzia zein den jakin gura dugu, gero horri erantzun bat emateko", dio. Udalak hirugarrenez antolatuko ditu aurrekontu parte-hartzaileak.



JUAN ANTONIO AROMA.

Hareek denporak!

DURANGALDEKO TXISTULARI EGUNA 1984an BOLIBARREN

42. Durangaldeko Txistulari Eguna ospatu zuten 1984an Bolibarren. Herri hori Durangaldetik kanpora dagoen arren, bertako Agustin Barrueta-beña eskualdeko txistulariekin izan zuen hartu-emanarengatik aukeratu zuten. Argazkia Ziortzako kolegiata aurrean ateratakoa da. Edizio horretan Agustin Barrueta-beña omendu zuten. Berau

1930eko abuztuaren 28an jaio zen, Bolibarko Gorroiz baserrian. Elizako armonioa izan zen bere lehenengo musika tresna. 20 urte gaz, txistua ikasten hasi zen, Esteban Manterola abadeak erregalatu zizkion txistuagaz eta danbolinagaz. Bere anaien artean eragina izan zuen. Halan irten zuten Karmelok txistulari, eta Jesusek eta Jabierrek atabalari.

Politikan

Jesica
Ruiz
PSE-EE



Martxoak 8: goazen denok batera

Datorren igandean Martxoak 8 da, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Joan diren bi urteetan greba orokorrak izan genituen, biak oso arrakastatsuak. 2018ko lehen greba lorpen handia izan zen mugimendu feministentzat, emakumeentzat eta gizarte guztientzat orokorrean. Bertan ideologia, arraza eta klase desberdinetako emakumeak elkartu ginen mezu bakar batekin: berdintasunaren alde borroka egiteko. Aurten igandea denez, ez da egongo grebarik, baina horrek ez du esan nahi emakumeak gelditu geratuko garenik. Klean egongo gara gure eskubideak aldarrikatzeko!

Egun hauetan asko ari gara entzuten Koronabirusari buruz, baina emakume askok jasaten duten indarkeria matxista, hori bai bada birus arriskutsua eta etengabe dabilena. 2020ko bi hilabete eskasetan 14 emakumeren hilketak izan dugu. Hau onartezina da!

Berdintasunaren, parekidesunaren eta kontziliazioaren alde jarraitu behar dugu, emakumeoi dagokigun lekua izan dezagun. Ezin gara gelditu geratu. Nahiz eta gauza asko lortu, oraindik egiteko bidea daukagu eta elkarrekin egin behar dugu. Helmuga gero eta gertuago dago eta denok batera heldu behar gara.

Mugimendu feministak eta udalak hainbat ekintza antolatatu ditugu elkarlanean Martxoak 8ren inguruan: Lilakrosa, abesti feministen lehiaketa, hitzaldiak eta film proiektzioa (zinegoak eta Comandante Arian). Durangar guztiak animatu nahi ditugu antolatutako mobilizazio eta ekintza guztietan era aktiboan parte hartzen.

Durangaldea asteen

Ager Sardui zinegotzi jeltzaleak kargua utzi du, "arrazoi profesionalengatik"

Durango I "Durangoko Udalean egiten diren batzordeetara eta osoko bilkuretara aldizka joateko ezintasuna, eta alderdiak eta udalerriak merezitako ardura eta dedikazioa eskatzen dituen postu bati behar duen denbora eskaini ezin izana" dira, Durangoko EAJk dioenez, Ager Sardui jeltzalea kargua uztera bultzatu duten arrazoiak.

Asteburuan Txiki Park-a egongo da Durangon, Landako Gunean

Durango I Etxeko txikientzako jolas parkea zabalik egongo da asteburu honetan Durangon. Dendak Bai elkarteak, Durangoko Udalaren laguntzagaz, eremu bat antolatu du Landako Gunean 2tik 5 urtera bitarteko umeentzat. 17:00etatik 20:00etara bitartean egongo da zabalik.

Iurretako Zaldai mendi taldeak mugikorrerako GPS ikastaroa antolatu du

Iurreta I Iurretako Zaldai mendi taldeak mugikorrerako GPS ikastaroa antolatu du datorren asterako. Martxoaren 10ean eta 11n izango da ikastaroa, 18:30etik 20:30era, Ibarretxe kultur etxean. Aurretik izena eman behar da, zaldai@hotmail.com helbide elektronikora idatzita. Ikastaroa euskaraz izango da eta android sistema eragilea duten mugikorrentzat egongo da prestatuta. Bazkide ez direnek bost euro ordainduko dute.



250 tona produktugaz, Karabana Solidarioa Tindufeko kanpamentuetara bidean da

Durangaldea I Rio de Oro Gobernuz Kanpoko Erakundeak eskualdeko elikagai eta material bilketa koordinatu du, bigarren urtez. Aurten, 250 tona bildu dituzte. Aurtengo ekimenean hainbat udalek parte hartu dute: Durango, Iurreta, Abadiño, Atxondo, Berriz, Mallabia, Zaldibar, Izurtza, Mañaria eta Garaiko udalek, hain zuzen ere. Baita Amankomunazgoak, eskualdeko ikastetxe eta elkarteek, eta askotariko komertzio eta enpresek ere.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Antzerkia Bultzatuz

MARTXOAK 13
19:00 IBARRETXE KULTUR ETXEAN

AITZIBER IZQUIERDO
"ESCÚPIDO AMOR"

Iurreta
Elizateko Udala
2020

Sarrera dohainik - Gonbidapenak hartzeko kultur etxean.

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etan eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com






Hau da Festa!

Ui, ui, ui, hori da kuxidadea! Pelloziri urtebetetze-festa ospatzen ari da etxean, baina gonbidatuak ez dabilta oso txukun... Anabasa horretan zazpi ordulari aurkitu behar dituzu. Eta hori egin ondoren, margotu ezazu irudia zure gustura, batere kolorerik ez du-eta.

Sudokua



Osa ezazu sudokua, URTEAK hitza osatzen duten hizkiak (U, R, T, E, A eta K) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



ZortziKoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden zortzi aldeak.



DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

ZURE
txokoa

enpresa-bilera
ospakizunak
urtebetetze
jaunartze
bataio

DURANGON
ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIRUA

688 864 975
info@zuretxokoa.com

www.zuretxokoa.com

Komentukale 23 behe, 5. esk. • 48.200 Durango - BIZKAIA



[MARTXOAK 8]

Martxoaren 6an

ABADIÑO tailerra
‘Emakumeen aliatuak’
tailer praktikoa,
16:30etik 20:00etara,
Mendiolako Errekatxo
elkartean. Hizlaria: Clara
Gutierrez Arana.

ATXONDO tailerra
Eskulan tailerra +
photocall-a, 17:00etan,
frontoian. Marixurrikek
antolatuta.

BERRIZ musika
‘La Llorona’ (Bego Ortiz),
22:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO hitzaldia
‘Signos en el tiempo’
berbaldia, 19:00etan,
Arte eta Historia Musean.
Hizlaria: M^a Jesús Cueto.

MAÑARIA ikastaroa
Emakumezkoentzako
autodefentsa saioa,
Xabi Pajaresen eskutik,
18:00etatik 20:00etara.

ZORNOTZA hitzaldia
‘Erreferente diren
emakume ekintzaileak’,
18:00etan, Nafarroa
zentroan. Hizlariak: Joana
Gil, Melanie Quintana ete
Olga Fernandez.

Martxoaren 7an

ABADIÑO musika
Afrikar perkusio
ikastaroko ikasleen
emanaldia, 13:00etan,
Traña-Matienan.

DURANGO dokumentala
‘Comandante Arian’
(Alba Sotorra), 19:00etan,
San Agustin kulturgunean.
Sugarri elkarteak eratuta.

ELORRIO ibilaldia
Emakumeentzako
Urkiolarako mendi
martxa, 08:30ean, Herriko
plazan. Urkiolan bazkaria.

MAÑARIA ikastaroa
Triki-poteoa, 12:00etan.
Bazkaria, 14:00etan,
kultur etxean. Ondoren,
bingo-morea+argazkia.

ZALDIBAR dantzaldia
Afaria eta dantzaldia,
21:30ean, Olazar frontoian.
Helmuga elkartekoen
lanen erakusketa,
Liburutegi zaharrean.

ZORNOTZA dantzaldia
Emakume Artisau eta
Nekazarien XIII. Azoka,
10:00etan, Zelaietan.
Musika zuzenean:
Lorelei Green +
Discofagia, 12:00etan.
Ane Gebara ipuin
kontalaria, 12:00etan,
udal liburutegian.
‘Elisa y Marcela’
(A Panaderia), 20:15ean,
Zornotza Aretoan.

Martxoaren 8an

ABADIÑO kontzentrazioa
Kontzentrazioa,
13:00etan, Trañabarren
kalean. Udalaren deiagaz
egingo du bat Mugimendu
Feministak.
Emakumeen Martxa
Feminista, 12:15ean,
Zelaietatik Traña-Matienara.
Beltzez jantzita, boa eta
pelukekin. Mugimendu
feministak deituta.
Manifestazio zaratatsua,
13:15ean, Traña-Matienan.
Emakumeen triki-poteo
feminista, 13:45ean.

ATXONDO bilkura
Emakume* bilkura,
11:00etatik 13:00etara,
plazan. Pankarta, kartel
eta eskulanekin plaza
antonduko dute.
Bermuteo musikatua,
13:00etan.
Bazkari herrikoia
bakoitzak etxetik
eramandakoagaz,
14:30ean, plazan (euriagaz
frontoian).
Bazkalostekoa,
16:30ean. Gura denari
buruz berba egiteko tarte
a, kafea edo infusioa hartuz.

BERRIZ martxa
Zumba, Berrioiz elkartean
eskutik, 11:15ean,
udaletxean.
Martxa, 12:00etan,
udaletxetik Olakueta plazara,
udalak deituta. Deialdi
horretara Azeri Gorriak talde
feminista ere batuko da.
Playback kolektiboa,
12:30ean, Olakueta plazan.
Pintxada Teknortera,
13:30ean, Urtiaga plazan.
Emakumeen herri
bazkaria, 15:00etan,
Urtiagan (euriagaz frontoian).
Bazkalosteko jaia,
17:00etan.

DURANGO lasterketa
XV. Lilakrosa, 12:00etan,
Ezkurdin. Amaitutakoan,
Batukandra, Santa Anan.
Siriako Kurdistango Jinwar
emakumeen herrixkaren
alde kamisetak salgai,
11:30ean.

Ekintza feminista,
18:00etan, Kurutziaga
kaleko iturrian. Mugimendu
feministak deituta.

ELORRIO tailerra
Anbotora igoera,
08:00etan, plazatik irtenda.
Garbiketa morea tailerra,
10:00etan, plazan.
Denen artean
prestatutako ibilbidea
herriko auzoetan zehar,
11:00etan. Goizean, plaza
atundu, pankartak...
‘Bortxatzailea nor
da? Zu!’ (Las Tesis)
performance feminista,
14:00etan, plazan.
Bazkari autogestionatua,
14:30etan.
Kafe-te feminista
musikagaz, 15:30ean.
Manifestazioa, 17:30ean,
Herriko plazatik.
‘Ikimilikiliklik’ (Marie
de Jongh Konpainia),
17:00etan, Arriolan.

IURRETA lasterketa
Milia Morea, 12:30ean.
Berdintasunaren alde herri
lasterketa herrigunean,
eta Anderebidek deituta
manifestazio-martxa.
Adierazpen instituzionala
eta txistor dastaketa.
Poteo autogestionatua,
13:30ean, Iurretako Gazte
Asanbladak antolatuta
(edariak IGArene eskutik).
Bazkari feminista
autogestionatua,
14:30ean, Askondoko
karpan (mahaiak IGArene
eskutik). Ondoren, jolasak.
Durangoko ekintza
feministara joateko
ordua ipini dute Gazte
Asanbladakoek, 17:30ean.

MALLABIA antzerkia
‘Levántate y mea de
pie’ + ‘Confieso que
he fingido’ (Detritus
Teatrus), 12:30ean,
Kontzejuzarrean.

MAÑARIA ikastaroa
Ekitaldia, 12:30ean,
plazan (euriagaz frontoian).
Pankarta prestatzeko
12:00etan.

ZALDIBAR kontzentrazioa
Kontzentrazioa,
Emakumeen Nazioarteko
Egunagaz bat eginda.
Helmugakoek egindako
lanen erakusketa,
Liburutegi zaharrean.

ZORNOTZA kalejira
Gosaria, 09:00etan,
Zelaietako karpan.
Kalejira musikatua,
09:30ean, herria atontzeko.
Kafe tertulia:
‘Emakumeak eta
migranteak gara’,
11:30ean, karpan.
Erakunde adierazpena,
13:00etan, Herriko plazan.
Herri mobilizazioa,
13:30ean. Patatara joateko
deia. Mugimendu feministak
deituta.
Emakumeen bazkaria,
15:00etan, karpan.
Kulturarteko
bazkalostea + mikro
irekia, 16:00etan.
Manifestazioa +
ekitaldia, 18:00etan.
Mugimendu feministak
deituta.

Martxoaren 10ean

ZORNOTZA zinekluba
‘El viaje de Marta’,
20:15ean, Zornotza
Aretoan.

Martxoaren 11n

ELORRIO dokumentala
‘Cachada’ 19:30ean, Iturri
kultur etxean.

Martxoaren 12an

ABADIÑO musika
Zinegoak, Bilboko
Gaylesbotrans
Nazioarteko Zinema
eta Arte Eszenikoen
Jaialdiko film laburren
emanaldia, 18:30ean,
Errota kultur etxean.

ELORRIO dokumentala
‘La última locura’,
16:00etan, Iturri kultur
etxean. Elorri Lorek eratuta.

Martxoaren 13an

ABADIÑO antzerkia
‘Fotos, hormonas y
lexatin’ ikuskizun
feminista, 19:00etan,
Errota kultur etxean.

DURANGO hitzaldia
‘Nik sinisten dizut’
hitzaldi-berriketaldia,
18:00etan, Andragunean.
Hizlaria: Samara Velte.
Andraguneko Euskarazko
Irakurketa Taldearen
eskutik.
Zinegoak, Bilboko
Gaylesbotrans
Nazioarteko Zinema
eta Arte Eszenikoen
Jaialdiko filmak,
20:00etan.

ELORRIO antzerkia
‘Yo, nunca’ (Krisol
Konpainia), 20:30ean,
Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia
‘Escupido amor’ (Aitziber
Izquierdo), 19:00etan,
Ibarretxe kultur etxean.

Martxoaren 29ra arte

BERRIZ erakusketa
‘Entre Fridas y Chavelas’
(Miriam Rodríguez
Morán), Kultur Etxean.

Martxoan zehar

ABADIÑO erakusketa
‘Gerorako oroitzapenak.
Ahalduntzeko praktika
artistikoak’, Errota kultur
etxean.

ELORRIO erakusketa
‘Emakumeak hitza
eta bizitza’, Iturri kultur
etxean.



'Agur eta Dolore' mikroantzerkia taularatuko dute Berrizen, zapatuan

ANTZERKIA | Kamikaz Kolektiboaren eta Ttak! Konpainiaren eskutik, *Agur eta Dolore* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, zapatuan, Berrizko Kultur Etxean. 2019an Bilboko

Pabellon 6 Aretoak emandako Kriseilu saria irabazitako obra 20:00etan hasiko da.

Iraia Elias eta Miren Gaztañaga bidegurutzean dauden harri-koskor bi dira, Agur eta

Dolore. Zelan egin aurrera? Norantza jo? Egia eta fikzioa, antzezpena eta bizipenak, aurrera egiteko gogoia eta zalan-tza existentzialak batzen ditu ikuskizunak.

Martxoaren 6an

DURANGO **berbaldia**
Mendiak Hurbilduz
proiektzioak: 'Elurretako
Lehoinabarra' +
'Karakorum', 19:00etan,
Plateruena kafe antzokian.
Hizlariak: Andoni Ormazabal
eta Jose Carlos Tamayo,
hurrenez hurren. Ekimenak
zortzigarren aldia izango du
aurten.

ELORRIO **musika**
Kaskezur + Sacco,
22:00etan, Arriolako
Ateneoan.

ZALDIBAR **urteurrena**
Gaztetxearen 16.
urteurrena:
luntxa + traka, 18:30ean.
Ondoren,
poteo girotua DJPakigaz.

Martxoaren 7an

ZALDIBAR **urteurrena**
Gaztetxearen 16.
urteurrena:
Bazkaria, 14:30ean
(tiketak Sorginen eta
Herriko tabernan salgai).
Ondoren,
bingo musikatua.
Fritanga elektrotzaranga,
18:00etan.
Kontzertua: Mocker's
+ Dj Eman Emak,
23:00etan.

Martxoaren 9ra arte

IURRETA **erakusketa**
'Zapatisten 11
eskakizunak' argazki
erakusketa (Lumaltik
Herriak), Ibarretxe kultur
etxean.

Martxoaren 6tik 8ra bitartean

DURANGO **azoka**
Aukera Azoka, Landako
Gunean. Gaur eta
zapatuan, 10:00etatik
14:00etara eta 17:00etatik
21:00etara. Domekan,
11:00etatik 14:00etara eta
17:00etatik 19:00etara.

Martxoaren 11n

ABADIÑO **ipuinak**
Sorgina Txirulina,
17:00etan, Mediatekan
(4-5 urteko umeei
zuzenduta). Bigarren saioa,
17:30ean, LHko 1., 2. eta
3. mailako neska-mutilei
zuzenduta.

Martxoaren 13an

ABADIÑO **tailerra**
Aurpegi margoketa
tailerra, 18:00etan,
Txanporta kultur etxean.
Katalamixonek antolatuta.
2006tik 2009. urtera
bitartean jaiotakoei
zuzenduta. Izena ematea
martxoaren 6ra arte,
Errota kultur etxean edo
Mediatekan.

BERRIZ **antzerkia**
'Ikimilikiliklik' (Marie
de Jongh Konpainia),
18:15ean, Kultur Etxean.

DURANGO **musika**
Joseba B.Lenoir + Gaizka
Insunsa, 22:00etan,
Plateruena kafe antzokian.
Joseba B. Lenoirrek
Instroak Vol.III diskoa
aurkeztuko du, *Bai,*
Bagara dokumentalaren
emanaldiagaz batera.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Tendríamos que haber
empezado de otra
manera' (Ékoma Teatro),
20:15ean, Zornotza
Aretoan.

Martxoko agenda



6

KULTURA SAILA

17:00 Antzerkia: "Meri, Mari eta Lari"

Gonbidapenagaz, 5 urtetik gorakoentzat **IUGAZTE**

17:00 Sukaldaritza: Krepak.

HERRI BIBLIOTEKA

Helduentzako ipuin kontalaria

19:00 Boni Ofogo "El elefante que perdió su ojo"

7

ANDEREBIDE

Bazkaria SAN BLAS jatetxean

Autobusa: 14:30 Correos-en. Info.: 616 49 05 06

8

GIZARTE ONGIZATE SAILA

Emakumeen Nazioarteko Eguna

12:30 Milia Morea berdintasunaren alde herri lasterketa.

Anderebide Emakumeen Elkartearen gunea.

Manifestazioa - Martxa.

Adierazpen instituzionalaren irakurketa.

Parrillada: "Txistor dastaketa". Askondo.

OLABURU FRONTOIA

16:00 - 20:00 Domeketan zabalik.



El doble más quince
Durangon

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• Lur eta Amets

barikua 6: 18:15

domeka 8: 17:00

:: Durango - ZUGAZA

• La candidata perfecta

barikua 6: 19:30/22:00

zapatua 7: 18:00/20:15/22:30

domeka 8: 19:00/21:00

astelehena 9: 18:30/21:00

martitzena 10: 20:00

eguzatena 11: 20:00

• El doble más quince

barikua 6: 19:30/22:00

zapatua 7: 19:30/22:30

domeka 8: 19:45

astelehena 9: 18:30/21:00

martitzena 10: 20:00

eguzatena 11: 20:00

• Onward

barikua 6: 19:30/22:00

zapatua 7: 17:00/18:00/20:15/22:30

domeka 8: 16:30/17:30/19:00/21:00

astelehena 9: 18:30/21:00

martitzena 10: 20:00

eguzatena 11: 20:00

:: Elorrio - ARRIOLA

• Ema

zapatua 7: 22:00

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:00

:: Zornotza - ARETOA

• Invisibles

barikua 6: 20:15

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:15

• Sonic

domeka 8: 17:00

ANBOTOkO agendan ezer iragarri
gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Baleukoren azken lana asteburuan helduko da Durangaldeko zinemetara

'El doble más quince' gaur eskainiko dute, lehenengoz, Durangoko Zugaza aretoan; Mikel Ruedak zuzendu du pelikula



ZINEMAGINTZA • A.M.

Durangoko Baleuko ekoiztetxeak Sonora ekoiztetxeagaz elkarlanean egin duen *El doble más quince* pelikula zinema aretoetara helduko da asteburu honetan. Besteak beste, Durangoko Zugaza zinema aretoan ikusi daiteke.

Mikel Ruedak zuzendu du *El doble más quince*. Maribel Verdú eta German Alcarazu dira pelikulako protagonistak; Ana eta Erik dira

euren pertsonaiak, 45 eta 17 urte dituzte, hurrenez hurren, eta sex-chat bidez elkar ezagutu dute. "Ana eta Eric, Eric eta Ana. Biak galduta daude. Ez dakite zer egin euren bizitzekin", adierazi du zuzendariak. Horrela, Rueda gizakiaren alderik "gizatiarrena" erakusten ahalegindu da filmean. "Beldurragatik ezkutatu ohi dugun alde hori erakutsi gura izan dut, bizirik gaudela erakusten duena delako, aurrera

Maribel Verdú eta German Alcarazu dira pelikulako protagonista nagusiak

egiten laguntzen diguna delako", gaineratu du. Zuzendariak berak antzeko egoera bat bizi izan zuela onartu du, gainera. "Bizitzan zirt

edo zart egin ez nekiela egon nintzen orain urte bi inguru; egoerak nerabazarora eta heldutasunera aldi berean hurbiltzen ninduen, eta, zorionez, konpondu ahal izan nuen. Mundu bi horiek ikaragarri erakartzen naute, nortzuk garen eta nora goazen argitzeko erabakigarriak direlako", esan du.

Adinaren krisia

Rueda zuzendariaren berbetan,

pelikula interesgarria izan daiteke adin tarte desberdinetako pertsonentzat. "Pertsonaia biak krisi betean daude, gazteak zein adinean aurrerago daudenak", argitu du. Anaren pertsonaia emakumeengan sortu dezakeen eragina ere azpimarratu gura izan du egileak: "Dudak, beldurrak eta bizi dituen sentsazioak hurbilekoak izan daitezke emakume askorentzat, batez ere 35etik 55 urtera bitarteko emakumeentzat". Protagonista bien artean sortzen den lotura hori da pelikularen ardatza. "Bien arteko adin desberdintasuna ez da arrakala bat; are gehiago, batu egiten ditu. Askotan ez da beharrezkoa argudio handiak edukitzea, edo bakarrikzeta handiak izatea bidean elkar laguntzeko. Erikek eta Anak nahi-

Asteburuan Durangoko Zugazara helduko da; ordutegia ANBOTOKo agendan dago ikusgai

koa dute bata bestearen ondoan egoteagaz, lagunduta sentitzeagaz. Biak batzen dituen ezaugarri bat dute: beldur dira", azpimarratu du.

"Etiketarik ez"

Gaurtik aurrera ikusgai egongo da Durangoko Zugazan. Ordutegia ANBOTOKo agendan dago ikusgai. Durangaldeko beste aretoetara heltzea aurreikusten dute Baleukotik. Horrez gainera, Mikel Rueda zuzendariak publikoaren aldetik erantzun positiboa edukitzea itxaroten du. Horretarako, generoetatik harago begiratzeko deia egiten du. "Drama erromantiko lez definitu ahaliko litzateke, baina gidoiaren izaera existentzialista ukatuko litzateke horrela. Egokiena norberak gidoia irakurri eta erabakitzea litzateke, inor ez duelako epel utziko", adierazi du Ruedak.



Udabarri dantza taldea.

Zalakain abenturazalearen istorioa dantzaren bitartez kontatuko dute Zornotzan

Argia dantza konpainiak prestatutako antzerkian Zornotzako Udabarri dantza taldeak ere parte hartuko du; martxoaren 14an izango da emanaldia, 20:00etan

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Argia konpainiaren ikuskizun berriak Martin Zalakainen istorioa hanken eta gorputzen mugimenduen bitartez kontatzen du. Juan Antonio Urbeltz koreografoak sortu du ikuskizuna, eta berak gidatzen ditu emanaldian parte hartzen duten dantza konpainiak; besteak beste, Zornotzako Udabarri dantza taldeak parte hartu du. Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea*

Juan Antonio Urbeltz arduratu da koreografia sortzeaz, eta gidoia Harkaitz Canorena da

eleberrian oinarritua, Juan Antonio Urbeltz koreografoak sortu du ikuskizuna, Harkaitz Canoren

gidoiagaz. Ander Lipus aktorea ipiniko da Barojaren azalean.

Dantzetan sakonduz

Martin Zalakain antzezlanaren helburua euskal dantza tradizionalaren esparruan sakontzea da, Udabarri dantza taldeko kideen esanetan: "Euskal dantza dramatiko garaikide berri bat sortu du eta dantzariak interpretatu egiten dute".



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

1901eko Coruñan emakume bik ezkontzeko egin beharrekoak kontatuko dituzte, zapatuan, Zornotzan

A Panadaría konpainiak Zornotza Aretoan eskainiko du bere azkeneko sorkuntza, zapatuan, martxoak 7, 20:15ean

ANTZERKIGINTZA • A.M.

A Panadaría (okindegia, galizieraz) konpainiak maitasunezko istorio bat dakar *Elisa y Marcela* antzezlanagaz. Areta Boladoren, Noelia Castroren eta Ailen Kendelmanen sorkuntzak 1901eko Coruñara (Galizia) darama ikuslea. Eurak dira, hain zuzen ere, obrako hiru antzezleak. Elisa eta Marcela, oster, istorioko protagonistak dira. Elkarregaz ezkondu gura dute, eta hala egingo dute, San Xurxoko elizan, bietariko bat gizon moztortuta dagoela. Ostean helduko da poliziaren jazarpena, ihesaldiak, identitate aldaketa eta informazioaren manipulazioa biltzen dituen istorioa. Antzezlanak benetan gertaturiko egoera baten berri emango du, batere lotsarik barik.

Kritikaren harrera ona edukitzeaz gainera, *Elisa y Marcela* antzezlanak bederatzi sari jaso ditu; 2018an, aktore, testu eta zu-

zendaritzarik onenaren sariak jaso zituen, besteak beste. LGTBIQ+ kolektiboaren saria ere jaso zuen, jorratzen duen tematikagatik, hain zuzen ere.

Ibilbide saritua

Elisa y Marcela obragaz legez, A Panadaría konpainiako kideak aurretik ere sariak jasotakoak dira. *Pan! Pan!* euren lehenengo

obragaz Crítica de Galicia saria jaso zuten 2015. urtean, eta Maria Casares eta Xuventude Crea sari bana ere jaso zuten antzezlan horri eskerrak.



A Panadaría.

Kaskezur talde beratarrak 'Ihesi doaz animaliak' diskoa aurkeztuko du Ateneon

AteneON kontzertu sortaren barruan antolatu dute; 22:30ean hasiko da, gaur



Kaskezur.

MUSIKA • A.M.

Komunikabide espezializatuek 2019ko proposamenik interesgarrienetarikotzat hartu zuten Kaskezur taldearen *Ihesi doaz animaliak* lana. Erreferenteak diren The Cure eta Sonic Youth taldeekin lotzen dute laukote beratarra. Bada, gaur Elorrioko Ateneo aretoan aurkeztuko dute lan hori. AteneON musika kontzertu sortaren bosgarren emanaldia izango da gaurkoa, eta 22:30ean hasiko da kontzertua; sarrerak 6 euro balio du.

Ion Mindegia, Iñigo Belzategi, Imanol Zubietak eta Mikel Santxezek osatzen dute Kaskezur, eta *Ihesi doaz animaliak* euren bosgarren lana da. Euren berbetan, egin duten diskorik "landueña eta garbiena" da.

Gai librean

Ihntza
Orbegozo Igartua
Plateruena



Porrotaren apologia

Martxoaren 8ak kutsatuta, erretorika berarekin nator ni ere, azken egunotan irakurri, entzun eta ikusi ditudan asko hausnarketarakoak iruditu baitzaizkit. Egia da sumatu dudala –edo sumatu nahi izan dudala– emakume sortzaileak euren lekua hartzen ari direla kulturean, eta etengabe ari direla lanean, pauso txikiak ematen, oraindik egiteko asko badago ere. Bertso-laritzan azken hamarkadetan aurreratu dena eredu garri iruditzen zait, eta beharrezkoa arlo honetan egin den lanketa beste diziplina batzuetara zabaltzea. Askok dira aldatzeko asmotan lanean ari direnak; musika gida morea, adibidez, ezinbesteko erreminta izango zaigu gutxi barru, eta, bide batez, Euskal Herrian zenbat emakume musikari dugun erakutsiz lezio bat emango digu. Horietako batzuk izan dira duela aste batzuk elkartu, eta harremanak sendotu eta lanerako indartsu daudela erakutsi digutenak.

Baina bai, oraindik egiteko asko dago. Bereziki atentzioa eman zidan porrot eta akatsei buruz irakurritakoak, emakume sortzaileek euren lana plazaratzean jasan behar duten epaiaz, perfektzioa ukitu beharraz. Lan eskasak burutzeko eskubidea ere gurea badelako, porrotek egiten baikaituzte lurtar, zergatik gizon ezko baten lan kaskar bat ez da hori besterik, eta aldiz, emakume batenak emakumearen beraren ahalmenaz zalantza egitera garamatza?

Esan beharrik ez dago martxoaren 8aren bueltan berdintasunaren inguruko eztabaida eta hausnarketak ugari direla, baina ezin dugu hau astebetera mugatu. Nik neuk ere, artikulu hau udazkenean idatz nezakeen... Askok dugu aldatzeko.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILE-APAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Euskarak Jose Angel Iribar eta Inaxio Kortabarria batu ditu, berriro ikurrina eskuan

1976an, Inaxio Kortabarria eta Jose Angel Iribar ikurrina eskuan zutela zelairatu ziren Atotxa zaharrera; Andra Mari ikastolan antolatutako berbaldi batek biak batu ditu

HITZALDIA • JOSEBA DERTEANO

1976an, Athleticen eta Realaren arteko derbiaren atarikoa, historiarako geratu den irudiko protagonista izan ziren Jose Angel Iribar eta Inaxio Kortabarria talde bietako kapitainak. Ikurrinari eusten zelairatu ziren Atotxara, zaleen txaloen artean. Orduan, oraindino legez kanpo zegoen ikurrina.

Joan zen barikuan irudi hori berriro zuten Zornotzako Andra Mari ikastolan. Guraso elkarteak antolatutako berbaldi batean izan zen.

Hizkuntza ohiturak aldatzen ahalegintzeko lehenengo ekimena izan zen ikastolan antolatutakoa

"Bere sasoiak ikurrinak batu zituen eta gaur euskarak batzen gaitu", azaldu zuen guraso elkarteko kide Amaia Sarrionandiak ekimenaren arrazoiei buruz. Izan ere, elkarteko kideak kezkatuta daude gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioan geroago eta gutxiago erabiltzen delako euskara, eta hainbat berbaldi antolatzeko asmoa dute hizkuntza ohituretan eragiteko. Iribarrek eta Kortabarriak lehenengo saioan parte hartu zuten.

Protagonista biek euskararen egoeraren inguruan gogoeta egin zuten eta, zelan ez, derbi historiko haretako pasarteak ere gogoratu zituzten. Esaterako, Iribarrek proposamena jaso zuen unea gogoratu zuen: "Kapitaina nintzen, baina

erabaki hori ezin nuen neuk bakarrik hartu. Aldageletara joan eta taldera eraman nuen eskaintza. Egoera orokorra ikusita, horrelako zerbait egiteko une aproposa zela esan nuen. Denek baietza eman zuten".

Baina, zelan atera ikurrina zelaira? Kortabarriak kontatu zuen plana: "Zorro batean gorde genuen. Zelairako tunela estua zen Atotxan, eta gogoan dut alde bietan 'grisak' zeudela. Gaingitu genuen tunela, eta handik zelaira ikurrina eskuan irten genuen".

Talde bien arteko hartu-emana "zoragarria zelako irten zuen aurrera ikurrinaren ideiak; hori gabe ez dut uste posible izango zenik", adierazi zuen Kortabarriak.

Euskaragaz konpromisoa

Kortabarriaren ustez, "Orain lehen baino jende gehiagok daki euskaraz; kontua da zergatik ez diren euskaraz aritzen". Iribarren iritziz,

Iribarren ustez, norbere baitan dago euskaraz egitea: "Konpromiso bat hartu behar da"

norbere baitan dago euskaraz ari-tzea. "Konpromiso pertsonal bat hartu beharra dago", esan zuen.

Lehenengo mailako euskal talde guztiek entrenatzaile euskaldunak dituztela nabarmendu zuten. "Ez hori bakarrik, denek hitz egiten dute euskaraz", azpimarratu zuen Kortabarriak.



Inaxio Kortabarria eta Jose Angel Iribar berbaldiaren ostean, ikurrinari eusten.



Gurasoak eta ikasle gazteak batu zituen berbaldiko une bat.

katerin ardoak
iñaki uribe
25^{urte} Saltsan
Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

hitz
liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
#salduenak

MIÑAN Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa) 1 ^o	AITAREN ETXEA Karmele Jaio (Elkar) 2 ^o	JOSEBA SARRIONANDIA AIREA EZ DA DEBALDE (Pamiela) 3 ^o
--	--	---

BODEGUILLA
TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Morgaetxebarria zornotzarra eta Azkarraga-Urizar elorriarra Biharko Izarrak pilota txapelketan arituko dira lehenengoz

Afizionatu mailako txapelketarik garrantzitsuenetarikoak otsailaren 27tik ekainaren 12ra arte iraungo du. Atzelari biek sei partidu jokatu dituzte gutxienez



Aimar Morgaetxebarria eta Gontzal Azkarraga-Urizar Biharko Izarrak txapelketaren aurkezpenean, Trabakua Behekoa jatetxean (Mallabia). **JULEN URIBE**

PILOTA • J.D/I.G.

Mallabiko Biharko Izarrak pilota txapelketa martxan da. Afizionatu mailan, txapelketarik garrantzitsuenetarikoa da, eta fruitu asko emandakoa. Ekainaren 12ko finalera arte, Euskal Herriko 24 pilotarik parte hartuko dute. Artean izango dira Aimar Morgaetxebarria zornotzarra eta Gontzal Azkarraga-Urizar elorriarra. Biek ala biek atzeko koadroetan jokatu dute eta Biharko Izarrak txapelketan jokatu duten lehenbiziko aldia izango da. Aurreko barikuan ekin zioten txapelketak eguen iluntzetan izango ditu jaialdi ia guztiak.

Azkarraga-Urizarrek eta Morgaetxebarriak "sorpresa handiagaz" jaso zuten txapelketan jokatzeko eskaintza: "Muturra sartzea gatxa da afizionatu mailako txapelketarik garrantzitsuenetan jokatzen ez zaudenean", adierazi zuen elorriarrak Mallabiko Trabakua Behekoa jatetxean egin zuten aurkezpenean. Morgaetxebarriak nabarmendu zuen maila "handia" dagoela nagusien kategorian.

Zornotzarrak lehenengoz jokatu du nagusien kategorian (gazte mailan dabil gaur egun). Zornotzako Lagun Onak pilota taldeko atzelariak hamazortzi urte egingo

Morgaetxebarriak lehenengoz jokatu du nagusien mailan; Azkarraga-Urizar antzeko formatuetan aritu izan da

Iazko finaleko lau pilotarietatik bik, Iker Salaberriak eta Iñigo Bikuñak, profesional mailara salto egin dute

ditu aurtan. Helburua "ahalik eta mailarik onenean jokatzeko" izango delarik, badaki ez dela erraza izango. "Txapelketan behartuta jokatzerako egongo naizela uste dut", esan zuen atzelariak. Euskal Herriko Txapelketan finalerdietara heldu da, Xabi Beitia lekeitiarragaz batera. Gaur finalerako txartela izango dute jokoan, Bergaran (Gipuzkoa).

Bestalde, Azkarraga-Urizar beteranoagoa da afizionatu mailan, aurtan 21 urte egingo ditu eta. Hala ere, ez dago ohituta afizionatu mailako txapelketarik garrantzitsuenetan jokatzera, nahiz eta azkenaldian torneo dezentetan aritu den.

"Itxura eman eta beste txapelketa batzuetako ateak zabaltzea" izango da elorriarraren helburua. Formatu bera duen Donostiako Pilotaren Txokoa txapelketan finalera heldu da, eta aurretik Tolosako (Gipuzkoa) Soroa txapelketan jokatu dator.

Denak denek aurka

Azkarraga-Urizarrek badaki zer den bikote finkorik bako txapelketa jokatzeko. 24 pilotariak multzo bitan banatuko dira. Multzo horietan, seina aurrelari eta seina atzelari egongo dira, eta denek denekin jokatu dute, jardunaldi bakoitzean bikote desberdinak osatuz. Sei jardunaldi eta hiru hilabete geroago, multzo bakoitzetik punturik gehien bildu dituzten aurrelari bik eta atzelari bik aurrera egingo dute. Durangaldeko pilotari biei "polita" iruditzen zaie txapelketa formatu hau. "Txapelketa honek erakusten du lana bakarka egin behar dela eta norberak egin behar dituela merituak", esan du pilotari elorriarrak.

Malle Pilota Taldeko ordezkariak 2004tik hona dabilta txapelketa antolatzen. Ordutik, profesional mailara heldu den pilotari ugari igaro da. Iazko finaleko lau pilotarietatik bik, Iker Salaberriak eta Iñigo Bikuñak, Aspe enpresagaz salto egin zuten profesional mailara. Orain dela urte bi, Abadiñoko arbasoak dituen Javier Zabala errioxarra ere bertan izan zen. Horiez gainera, Jokin Altunak, Beñat Rezustak, Danel Elezkanok, Iñaki Artolak eta izen handiko beste zenbait pilotarik jokatu dute Mallabiko frontoian. Beraz, 2020ko ediziotik izarren bat ateratzeko aukera asko egongo dira.

Asteko kirolaria



MIKEL CARRACEDO LIZUNDIA

Abadiño, 1993

Orain lau bat urte, Mikel Carracedok arte martzialen munduan murgiltzea erabaki zuen. Gaur egun maila bikainean dihardu,

“Fisikoki ondo egoten laguntzeaz gain, Jiu Jitsuak oreka mental bat ere ematen dit”

Asteburuan urrezko domina bi irabazi ditu ZR Basque Country taldeko abadiñarrak

eta asteburuan urrezko domina bi eskuratu zituen Zamudion, ZR Basque Country taldeagaz.

Urrezko domina bi lortu dituzu. Itxarondako emaitza izan da?

Aurkarien maila ikusita, eta ni zelan nengoen jakinda, dominen borrokan ibiltzeko esperantzazag joan nintzen. Baina kirol honetan detaile txiki batek dena markatzen dizu, eta posizio txar batean dena galdu dezakezu.

Jiu Jitsu eta no-gi modalitateetan parte hartu zenuen. Gainera, lehenengoan, aurkaria minutu batean menderatu zenuen.

Egia esan, nahiko erraz menderatu ahal izan nuen, eta ez zen zorte kontua izan. Hasi eta berehala, lurrera jausi ginen, eta nahiko bizkor lortu nuen bera itotzea.

Zeintzuk dira Mikel Carracedoren hurrengo helburuak?

Gimnasioan gauden denon hel-

buru nagusia Durangaldean Jiu Jitsua ezagutaraztea da. Oso giro ona daukagu, giro euskalduna. Gainera, kirol honetan adin guztietako jendeak du tokia. Lehiari dagokionez, maiatzean jokatu den Euskadiko Txapelketan lan ona egitea gura nuke.

Nahiko nagusi hasi zinen kirol honetan. Zerk eraman zituen horretara?

Borrokak beti gustatu izan zaizkit, eta azken urteotan MMA-k

izan duen gorakadagaz, Jiu Jitsuak ere gora egin du munduan. MMA-n gaztetatik ibili behar duzu, baina ez dago adinik kirol horren oinarri nagusia den Jiu Jitsuan hasteko. Gainera, uste dut borrokarako erabili daitekeen arte martzialik onena dela. Orduan, 22 urteagaz probatzea erabaki nuen, eta ordutik hona kirol hau praktikatzen nabil.

Jiu Jitsuak zer ematen dizu?

Fisikoki ondo egoten laguntzeaz gainera, oreka mental bat ere ematen dit, eta baita konfiantza ere nire buruarengan. Gainera, honek erakusten dit bizitza errealean ere edozein egoera txarretatik urten zaitezkeela, arnasa baduzu.

Tabira igeriketa taldeko gazteak Italian izango den Munduko Txapelketa prestatzen dabilta

Espainiako txapelketako errelebo proban brontzea eskuratu eta gero, "gogotsu" ari dira iraileko hitzordua prestatzen

IGERIKETA • JOSEBA DERTEANO

Tabira igeriketa taldeak harrobiagaz egiten duen lan onaren erakusgarri dira Iñigo Fernandez de Arroiabe, Adrian Fernandez, Erenoitz Barrenetxea eta Julen Azkarate. Joan zen astean, sorospen eta salbamenduko Espainiako Txapelketan parte hartu zuten gazte mailan Alacanten (Valentzia), eta brontzezko domina eskuratu zuten 50 metroko erreleboen oztopotun proban. Euren ibilbidean proba horretan eskuratzen duten hiru-garren domina da: 2018tik hona, brontzezko eta zilarrezko beste domina bana gehitu diete euren palmaresari.

"Nahikotxo entrenatuta eta esperantza handiagaz joan ginen Alacantera, eta, egia esan, laurok oso ondo aritu ginen", gogoratu du Julen Azkarate 17 urteko igerilari durangarrak.

Urrea segundo erdira

Proba estu-estua izan zen Alacanten lehiatu zutena. Lehenengo hirurek



Iñigo Fernandez de Arroiabe, Adrian Fernandez, Erenoitz Barrenetxea eta Julen Azkarate, eskumako aldean brontzezko dominarekin.

segundo erdiren barruan amaitu zuten lana. Urrea hain gertu izanaren penarik ez dute, hala ere. "Gure lana oso ondo egin genuen eta pozik gaude brontzezko dominagaz", dio Azkaratek. Orain, irailean Italian izango den Munduko Txapelketa

buru-belarri prestatzen dabilta. Laurentzat estreinaldia izango da. "Gogotsu gaude, ilusio handiz, eta oso gogor entrenatzen ari gara. Denaren bila goaz eta ikusiko dugu zer gertatzen den", dio Tabira igeriketa taldeko gazteak.

Lau gazteez gainera, Tabira igeriketa taldeko partaide gehiago ere aritu ziren Espainiako Txapelketan lehiatzen. Esaterako, Gonzalo Diazek eta Peio Etkezarragak bosgarren tokia lortu zuten soka-jaurtiketa proban.

Beti Golek eta Elorrioko Buskantzak areto futboleko derbia jokatu dute

Lehenengo itzulian, elorriarrak 4-1 nagusitu ziren euren etxean jokaturako partiduan



Beti Gol areto futbol taldea.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Emakumeen areto futbolak eskualdeko talde biren arteko derbia ekarriko du zapatuan: Zornotzako Beti Gol eta Elorrioko Buskantza Etxelan Inmobiliaria taldeek indarrak neurtuko dituzte Larrea kiroldegian, 18:00etan.

Lehenengo itzulian, Elorrioko jokaturako derbian, etxekoek 4-1 menderatu zuten Beti Gol. Talde biak sasoi onean helduko dira partidura, euren azken partidua ira-

bazi eta gero. Elorrioko Buskantza laugarren kokatuta dago sailkapenean, eta garaipena behar du lehenengo hirurengana gerturatzeko. Bost puntu goitik du Soloarte, hiru-garren sailkatua.

Elorrioko Buskantzak garaipena behar du lehenengo hirurengana gerturatzeko

Emakumeen Bizkaiko areto futbol ligan dabilen Durangoko Mendibeltz taldeak ere jokutzen du. Seigarren dago sailkapenean, Beti Gol taldearen atzetik, hain zuzen ere.

Jokaldia

Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak



EMFko rankinga

Abian da 2020ko Euskal Mendi Federazioaren lasterketen Rankinga. Aurten ere Kalamua-Barinaga jaitiera izan da lehen proba, ur-tarrilean. Barinagako festa giroan antolatzen duten lasterketa berezi honetan, parte-hartzaile denak batera Kalamua mendira igotzen dira paseoan, bidea ezagutuz. Behin gora iritsi eta beherako kronometrajea hasten da banan-banan: kronoigoera bat, baina beheraka! 2017an egin zen lehen aldi horretan ia hamasei minutu behar izan nituen tontorretik Barinagako frontoira iristeko, baina ordu laurden hura ez zait erraz ahaztuko; egin dudana lasterketa berezienetako bat izan baitzen.

Aurtengo irabazleak Mikel Zabalegi eta Irune Ruiz de Gauna izan dira.

Rankingeko bigarren proba Larra Belaguako elur lasterketa izan da, otsailaren 9tik 28ra atzeratu behar izan zutena elur faltagatik, hain zuzen ere. Joan den larunbatean ilusio handiz abiatu nintzen lagunekin Izabara, baina Belaguara igotzen hasi orduko konturatu ginen mendietan elur gutxi zegoela. Heldu bezain laster jakinarazi ziguten lasterketa burutuko zela, nahiz eta ibilbide osoaren laurden bat baino gutxiago egon zurretuta.

Elur lasterketa baino kros itxura handiagoa zuen lasterketa hartan izugarri gozatu nuen; ilunpetan eta behelaino itxiarekin non zapaltzen nuen ere jakin ez arren. Nuria Dominguez eta Alvaro Peña izan ziren azkarrenak.

Noizean behin, erosotasun eremutik edo ohikoak zaizkigun egoeretatik alde egin eta bizipen ezberdinak probatzea ondo etortzen da. Horregatik, polita iruditzen zait mendi lasterketen ranking honetan deneriko probak egotea. Hurrengo antolakuntza bikaina duen Kolazino lasterketa izango da, hilaren 21ean, Bedian. Aurten ere hantxe egongo gara!

 **Seguros Bilbao**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

GAER  **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Eguazteneko
17:00ak arte
jasotako iragarkiak
bariku horretako
alean argitaratuko
ditugu. Geroago
jasotakoak
hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA / NEGOZIOAK
- DENERIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA / KIROLA
- FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (paperean agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: Enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

DENERIK

Oilarra salgai: Euskal oiloa Zilarra arrazakoa. Oilotokiko oilarra aldatu beharra daukagunez, oilarra saltzen dugu. Tel.: 655 06 67 84

Arratoi-txakurrak oparitzen dira. Arratoi-txakurrak oparitzen dira. Oso txikiak dira, baserrian jaiotakoak. Otsailaren 8an 2 hilabete egingo dituzte. Tel.: 610 90 21 41

Etxea/k egiteko larrea salgai. 9 Ha-tako larrea salgai 2 etxebizitzako etxea edo batekoa egiteko baimenarekin, Unsaegi, Bolibarren (Trabakutik 15 minututara) Tel.: 691 40 50 17

Gurpildun aulkia salgai. Gurpildun aulkia salgai, 2 antieskara kuxiñekin. Tel.: 666 41 33 85

Pertsonak altxatzeko grua salgai. Pertsonak altxatzeko garabia saltzen dut, bi arnesekin. Tel.: 666 41 33 85

Baserriko harri harlauzak. Baserriko harri losak salgai, tamaina ezberdinetakoak. Tel.: 690 31 46 45

Trikitixa salgai. Trikitixa salgai Paolo markakoa. 500€. Tel.: 636 22 07 96

Giza baliabideak kudeatzeko langilea. Pertsona bat behar da Durangoko bulego baterako giza baliabideak kudeatzeko. RRHHen formakuntza edo esperientzia izatea beharrezkoa da, baita komunikatzeko euskara maila egokia ere. Tel.: 946 03 21 53

Sukaldea garbitzeko pertsona bat behar da. Zaldibarren, sukaldea garbitzeko emakume baten bila gabiltza. Hilean 3 egun, kontratuarekin.

Baserriko harlauzak. Neurri desberdinetako losak salgai. Lodiera 15-20zm-takoa. Prezioa; negoziagarria Tel.: 690 31 46 45

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK Ecofit plus ohe artikulatua salgai. Zurezko ohe artikulatua salgai, somier eta koltxoiarekin. Gaixo eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako egokia. Egoera oso onean. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 675 71 34 01

Baby Jogger City Elite aulkia salgai Salgai Baby Jogger City Elite aulkia. Oso egoera onean. Neguko eta udaberriko zakuekin 300 eurotan. Tel.: 623 18 37 93

GARAJE/TRASTEROAK

Garaje-plaza salgai Durangon. Alde Zaharretik oso hurbil (Antso Estegiz Zumardia kalea, 4). Neurri ertaineko kotxea sartzeko espazio nahikoa (Ford focus baten baliokidea). 9,45 m² Tel.: 695 70 68 08

Garajea alokagai San Ignazio auzoan. Garaje lursaila hilean 50 euroren truke alokatzen da Durangoko San Ignazio auzoan. Harremanetarako Tel.: 603 31 12 72

LAN ESKARIAK

Anbotok banatzaileak behar ditu Durangaldean

Banatzaileak behar dira barikuetan alea banatzeko. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. Interesatuak deitu Tel.: 655 71 09 31

Abadiñoko Abarketeruena tabernan sukaldaria behar da astelehenetik ostiralera lan egiteko.

Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da

Bidali curriculum: abarketeruena@gmail.com helbidera edo deitu 660 188 74 05 zenbakira.

Haurrak zaindu Goizetan haurrak zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko prest dagoen neska elorriarra naiz. Andereño lanean esperientzia dut. Interesa baduzu, deitu lasai Tel.: 678 21 35 47

Euskara irakaslea Euskal Filologia duen irakasle bat behar dut, C1 azterketa prestatzeko. Tel: 676 57 94 44

LAN ESKAINTZAK

Goi mailako ziklo eta unibertsitate mailako klaseak ematen dira. Algebra, kalkulua, marrazketa teknikoak, estatistika, kontabilitateko klaseak ematen dira. Goizez zein arratsalde, talde txikian eta bakarka. Tel: 946 55 02 68

Estetika kabina alokatzen da Estetika kabina hornitua eta funtzionamenduan alokatzen da Elorrixon. Bezero finkoak ditu eta bezero kopurua handitzeko aukera ematen du; izan ere, estetika kabina ileapaindegi barruan dago. Tel.: 649 77 83 93 edo 688 71 74 10

Matematika partikularrak emateko pertsona baten bila gabiltza 6. mailako (LH) ume bati matematika partikularrak eguerdian emateko pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 649 56 34 92

Elorrioko baserri baterako langile bila gabiltza. Elorriko 40 urtetik gorako emakume baten bila gabiltza, domeketan baserri batean lan egiteko. 9:00etatik 20:00etara. Tel.: 653 72 30 95 (Pili)



KOLDO OTAMENDI
ASTE HONETAN
GAIZKA PEÑAFIEL

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



Informazio gehiago:





Botikak	
BARIKUA, 6 - 09:00-09:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANG	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 9 - 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 7 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 10 - 09:00-09:00
09:00-13:30	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANG	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	EGUAZTENA, 11 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 12 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 8 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**.
Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Gure **Iratik** 5 urte egin zituen martxoaren 4an. Zorionak, polit hori! Maite zaitugu! Ani, aitatu, Mitxi, Errentxu, Ilargi eta amatu.



Zorionak, **Kemen!** Musu handi bat Durangoko familiaren partez, eta, batez ere, zure lehengusina Aroaren partez. Mua!



Martxoaren 4an, **Elene** Ugaldea Arteagak 18 urte egin zituen eta bere lehengusuak, **Martin** Ugaldea Iñurriarrok, martxoaren 11n, 6 urte egingo ditu. Familia osoaren partez zorionak, zeuen egunaz disfrutatu eta musu handi bana.

Eguraldia		
ZAPATUA 12° / 6°	ASTELEHENA 13° / 8°	EGUAZTENA 18° / 10°
DOMEKA 13° / 5°	MARTITZENA 20° / 7°	EGUENA 20° / 9°



Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian



“Gure ipuruek, txakolinak eta mahats esentziak egiten dute berezi gure ginebra”

Txakolinetik sortutako euskal ginebra saritu dute, otsailean, Londresen. Bertoko osagaiekin eta eskuz landutako kalitatezko produktua dela azaldu du Astobiza upategiekin lan egiten duen Arkaitz Urreta durangarrak

Arkaitz Urreta Jainaga (Durango 1988)
• Astobiza bodega

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Espainiar Estatuko London Dry Premium ginebrarik onena da Astobiza. Hala aitortu diote Londresen egindako World Gin Awards sariketan. Bestalde, munduko edaririk onenaren saria lortzeko lehian, 22. geratu da. Arabako Astobiza txakolindegia 2018an heldu zion ginebra egiteko erronkari, Basque Moonshiners destilategiak proposatuta. Europako, Asiako eta Amerikako 15 herrialdetan saltzen da.

Berba bitan

Zelan hartzen duzu ginebra?

Tonikagaz eta limoi tanta batez.

Gin-tonic bat hartzeko momenturik onena?

Iluntzean

Zaletasun bat.

Pilotan jokatzeari.

Paisaia bat.

Anboto

Abesti bat.

'Cerebros destruidos' (Eskorbuto)

Bidaia bat.

Txilera

Euskal Herrian ginebrak badu merkaturik?

Bai! Garagardoak egin duen ibilbide berdina egin dezake. Lehen, gutxi batzuek egiten zuten garagardoa Euskal Herrian. Orain, geroago eta gehiago daude.

Euskal DNA duen ginebra bakarra da Astobizarena?

Txakolinetik eratorritako ginebra bakarra da, hori bai.

Zerk eroan zintuzten ginebra egitera?

Originala izan zitekeela pentsatu genuen; txakolinetik sortutako ginebrarik ez dugu eza gutzen. Eta, adibidez, txakolina ekoizteko prozesuan dauden inausteak aprobetxatzeko aukera ematen du. Osagai berdinekin produktibitate handiagoa lortu daiteke.

Londresko World Gin Awards lehian sartuak izan zarete.

Espainiar Estatuko London Dry Gin onenaren saria jasotzen dugu. Poztekoa da, produktuari emandako izenagatik, batez ere: txakolina lako Euskal Herriko produktutik beste bat lortu izana, mundu zabalean erakusteko modukoa, esanguratsua da Astobizarantz. Ateak zabaltzen ditu beste herrialde batzuetan sartzeko. Irudirik onenaren saria ere lortu genuen.

Euskal Herriko osagaiak %100ean erabili dituzte?

Laredoko (Kantabria) limoien bat kenduta, osagai guztiak

Euskal Herrikoak dira. Botanikoak (mahatsa, masustak, basaranak, loreak...) Aiala bailarako mahatsondoetatik hartzen ditugu, eta ipuruak eta Euskal Herriko beste leku batzuetatik, pomeloak eta marrubiak, adibidez. Gure ipuruek, txakolinak eta mahats esentziak egiten dute berezia ginebra hau. Txakolina egiteko mahatsa fermentatzean askatutako karbonikoa destilatzen dugu, -60 gradutan. Ondoren, guk esandako proportzioetan, Basque Moonshiners destilategiak gure errezetekin destilatzen du.

Marrubiak, loreak eta masustak aipatu dituzu...

Mugarik bako prozesua da ginebrarena, eman gura diozun zaporea edo usainaren arabera aukeratzeko dira osagai asko. Marrubiak sartzea azken momentuko proba izan zen eta ez du ematen txar to joan denik.

Zer hartu behar da kontuan ginebra on bat hartzerakoan?

Gardentasuna, batez ere. Edaterako orduan freskotasuna, zitrikoen ukitua, eta, edan ostean, ahoan zaporea mantentzea. Hori bilatzen dugu guk behintzat. Dena dela, ginebra mota asko daude, badaude urdinerako joera dutena, gardenak izan beharrean.

Gin-tonicaren aroan gaude? Bada, kigu zelan hartu ginebra?

Ez dakit horrenbesterako den, baina bazkaloste eta afalosteetan geroago eta gehiago ikusten den edaria da. Gustu kontua da, baina konbinatzen jakin behar dela uste dut. Edariari behar ez dituenak botatzen zaizkio askotan. Pepinoa, adibidez, oso aromatikoa da eta ginebraren zaporea hil egiten du.

Lauhortza

Mikel Uriguena Ruiz
Irakaslea



Alkoholipsia

Inauterietako igandean Durango apokalipsiak hartu zuela zirudien. Alde Zaharretik Zuhartzolarako bidean soilik, botilak, plastikozko zein kartoizko poltsak, moztarrotuak, kaka, txiza eta gonbitoak aurkitu nituen. Gauza hauen guztien artean batek eman zidan atentzia.

Nonahi aurkitu zitezkeela kristal zati txikiak. Horrek zerbait adierazi nahi zuen: zapatu gauean kalean edaten ibili ziren asko eta askok, neurrigabe edan eta hondakinak ez jasotzeaz gain, hustutako botilak apurtzea erabaki zutela. Zergatik?

Honen aurrean, logikoki, herriko sare sozialak sutan jarri ziren. Ez da batere atsegina goizean jaiki eta kaleak horrela topatzea. Kexa mordoa zikintasunaren ingurukoak ziren.

Udalak eta garbitasun zerbitzuek ez zutela nahikorik egin eta ez zela aurreikuspenik egon.

Beste batzuek, aldiz, gazteen sensibilitate eta errespetu falta zekarten harira; belaunaldi berrien balio falta salatzen zuten.

Erraza da gazteei eta erakundeetara errua botatzea norberaren erantzukizunari aurre ez egin. Gizakiok oso barneraturik ei dugu gure atzetik datozen belaunaldiak kritikatzeko. Niri, ordea, hainbat galdera otu zitzaizkidan. Zer dela eta jotzen dute gazteek masiboki alkohola modu horretan edatera? Zein beste aukera dauzkate? Zein rol jokatzen dugu euren guraso, irakasle, senideko eta abarrek? Azken finean, guk hezitako pertsonak dira. Benetan alkoholaren kontsumo masibo hori bukatzea eta esparru publikoarekiko errespetua hedatzea nahi badugu, ezin gara kexa hutsean geratu.

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com